

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1990eko Martxoak 2, 54. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



Haratuzteak

Chelsea, 3:00 a.m.

BEA ARREGI
Hamaika urte
eskulanetan

Joseba



HOTZ - BERO

zibro
kamin TURBO

Kanpantorpea, 2

Tfnoa: 79 70 98

79 67 54

ARRASATE



ARRASATE TELEBISTA

Frogatan bada ere, honez gero hasi gara emititzen. Hilabetez edo, horixe egingo dugu, frogatan emititu, Arrasateko etxe guztietan seinalea ondo hartzen dela jakin arte. Hasieran albiste saioak bakarrik emango ditugu eta, asteak aurrera joan ahala, programazioa osatuz joango gara.

Badakizu non aurkitu

ZURE TELEBISTAREN 23. KANALEAN, UHFen

Oharra: Monokanaldun antena duzuenok 23 kanaleko anplifikadorea jarri beharko diozue, ATBren seinalea jaso ahal izateko. Badaezpada ere, kontsulta ezazue zuen antena jartzallearekin.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA



Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1,
20.500 ARRASATE. Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Jon Andueza
Bego Zubia

Publizitatea eta harpidetak:
Josune Biteri
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontsellua: Jose Felix Diaz de
Tuesta, Harry Zaraia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele
Zuazubiskar, Patxi Montero,
Juan Martin Elexpuru, Eukeni
Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo
Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus
Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo
Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea,
Joseba Vallés, Karmelo Uribarren,
Iñaki Aranburu, Hankamotz,
Maite Toledo, Atalataikoan.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 6.100 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esanen eta eri-
tzien erantzunkizunik.

Horra hor mundua!

Egun batetik bestera eror daiteke homarik sendoena eta ordu gutxitan hauts bilaka dakiguke burdinezko oinarrian eraikitako politika sistematik bildurgarriena. Giza boterea hain haundia izanik, gezurra dirudien arren, ezerezean gera daiteke ez dakit zernolako eragilek batera dihardutenean. Ondorioa, beti, galtzailearen amaiera izaten da, garaipekin ezin baitezake harriren gaineko harririk errespetu. Galeriarri begira, bederen.

Babeleko dorre mitikoa, Jerusalemeko tenploa, Alejandriako liburutegia, Berlineko harresia eta Ceauscurenen katakunba ikaragarriak. Gizartearen irudimenak nahiz lanindarrak jasotako asmakizun eta egia bikainak, hots, edozein gizartek-unean unekoak- bizi izandako gauzatze guttiz konkretuak. Bizi izate horrek gozatze eta sufrimenduak azaltzen dizkugularik, gizonarengan erreakziorako zuzia pizten du; edozein erreakziorako zuzia, alegia. Horixe dugu gure izatearen nolakotasunik adierazgarrienetako bat, nahiz eta guretzat gehienetan igartezina izan.

Eta, hain zuzen ere, ez dakit noraino ez ote den erreakzio horretarako ahalmena askatasun osoaren ispilu gardena. Errealitate erraldoiak errealitateegi bihurtzean nekagarri eta arbuigarriak ditugu, haien defentsarako xahuturiko esfortzuak, bapatean, haien suntsiketarako desbideratzen direlarik. Eskubide guztiaz, gainera. Ez al da hori, beraz, giza askatasunak exigitzen duen gutxieneko ordaina?

Perestroika ez da XX. mende amaierako asmakizunik. Carlos Fuentes mexikar idazleak 68ko Txekoslovakian ezartzen du mugimendu horren sorlekua. Oker dabil, askatasunezko egarria ezaz batera sortzen baita. Eta 68rako guttiz agortuta zeuden libertatearen iturriak, ez bakarrik Txekoslovakian... mundu osoan, baizik. Azken finean, berezko ahalmenaz erabakitzeak aukera kentzen zaionean galtzen baitu gizonak bere askatasuna.

Babel, Jerusalem, Alejandria... historiak eta mitologiak indar guztien gainetik eraikitako eta lurreraturiko esperantzak. Jaioko dira berriak.

Josemari Velez de Mendizabal

inpresio ona



inprimategi eta
autoedizio
zerbitzuak

Ozaeta 1, Tfnoa: 76 27 41 BERGARA



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa:799457

GIROA AROTZAK

Iturrioz 14, ARRASATE

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

M A ARENAZA

Altzariak
Diseinua
Apainketa

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07
ARETXABAETA

MARTINEZ aroztegia

Sukaldetan
neurri guztietako
altzariak

Araba Etorbidea 13,
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea 2,
Tfnoa 79 29 91
ARRASATE

Besaideko bazkide anonimo horri

Bazkide agurgarria:
Egia esanda Besaide skizaleko bazkide ez denak, ez du 500 pta. gehiago ordaintzen. Bidaiaren benetako kostoa besterik ez du ordaintzen. Besaide skizaleek Besaide barruan funtzionamendu autonomoa dute. Hau da, gestio apartekoa daramate, Besaideko kuotaz aparte gainontzeko bat dutelarik. Aurten skiko bazkideei 500 pta. gutxiago kobratzea erabaki zuten azaroan egindako batzar nagusian, beraiek duten diru fondoekin kosteatua.

Hau da gaur egungo egoera; honek ez du esan nahi onena denik. Datorren urtera begira nola planteatu aztertzen gabiltza.

Edozein modutan, uste dugu badaudela bideak halako gauzak planteatzeko, bai urteroko batzar nagusira eta bai elkarte bertara jota.

Hala ere, kritika egitea onartzen dugu, hau konstruktiboa denean. Beraz, esandakoak lekuz kanpo daudela uste dugu, eta ez dugu uste hau dela modu aproposena gauzak zuzentzeko.

Besterik gabe eta zure zalantzak argitu direlakoan, agurtzen zaitugu.

Jon Arregi

*Besaide Mendizale Elkarteko
Lehendakaria*

Denok dakigu "Euskara dela euskaldun egiten gaituena"

Galdera
Erantzu zintzoa
Non sartzen naiz ?

Aztertu ditzagun eta konparaketa egin, euskara begiraturaz noski, nolako harremanak ditugun edo dauden kaletan, tabernetan, elkarteetan, salerosketak egiterakoan, bileretan, komunikabideetan, lantegietan, etxean, ... behar bada kasu batzuetan aurrerapausuak eman dira, baina orokorki begiratu ta, euskarak aurrera ala atzera egin du?

Euskalduntze prozesuan, zenbat terreno jan dio euskarak erdarari, denbora baten honek gure hizkuntzari jan zion bezala? Garbi ote dugu euskarak erdara baztertuz joan beharko

duela, Euskal Herri euskalduna nahi badugu ?

Ohartzen ote gara pertsona heldu mailan euskara ikasten ari direnen kopurua gehituz ala gutxituz doan azken urteetan?

Instituzio, alderdi politiko, sindikatu, etab.ekin ditugun erlazioetan somatzen al dugu euskararen beharra?

Konturatzen al gara zein hizkuntzatan esaten ditugun gure lehen hitzak?

Zenbaterako eragina izan duten lantegietako erlazioetan, Metaleko Komenio Probintzian onartu eta sinatu ziren Akordioak ?

Zenbat irabazi du euskarak fabrika edo lantegietan? Edo nahi al dugu Euskal Herria euskalduna, lan lekuak euskaldundu gabe ?

Zintzoki erantzuten badiegu galdera hauei, benetan jakingo dugu zein den euskararen egoera. Lantegietan ere euskara aurrera atera behar dugunez, bideak aurkitu behar ditugu.


Euskalanez, oraingo honetan, bi proposamen egin nahi dizkizu:

1.- Gai honek duen garrantziaz jabetuz, zure betebeharreran eta inguruan euskara erabiltzen eta bul-tzatzen saiatzea egunez-egun.

2.- Euskalanez urte batzuk direla hartutako dinamika, aurrerantzean eutsi eta bizkortu behar duelako, zeuk ere laguntzea eta ahal duzun neurrian parte hartzea zure lantegiko Euskalan taldean.

Euskara salbatzeko biderik bada-go. Egin eta ibil ditzagun elkarlanean!

Euskalan taldea



Nola ikusten duzu insumisioa?



Javi García
(langilea)

Oso ondo ikusten dut. Nire eritziz bakoitzak nahi duenagatik borrokatu beharko luke.



Valentina Manzano
(langilea)

Egia esan, ez dut gaia ondo ezagutzen. Baina batzuk soldaduzka egitea eta beste batzuk ez egitea ez dut ondo ikusten. Edonola ere, ez dut uste hori kartzelara sartzeko arrazoia denik. Legeak horrelako arazoak konpondu beharko lituzke.



Patxi Yarza
(langilea)

Oso ondo ikusten dut. Nik soldaduzka egin nuen, baina ez nago armadaren alde. Nire ustez armadak profesionala izan beharko luke.




Ines Pozo
(langilea)

Nire ustez, gazte guztiak izan beharko lirateke insumisoak. Nire ustez ez litzateke armadarik egon beharko.

LENIZ

AUTO ESKOLA



LASTER: AUTOBUSA ETA KAMIOIA

ARRASATE - ESKORIATZA

Jesus Giraldo

LISERI-APARATUA

X Izpiak, endoskopia

(Lagun Aro, Gipuzkoako Foru Aldundia, Previassa, Adeslas

(Muface) eta partikularrak

Kontsultak arratsaldeetan

Loramendi 6, 2. B (Eguzki dorrea) Tfnoa: 79 04 14 Arrasate

Memesa

79 42 22

I R A T I

Ferrerias kalea

Tfnoa: 79 71 80

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate	79 13 57
.....	79 97 22
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 88 96
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako anbulantziak	45 87 44
-------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZANTZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	
.....	79 87 77

2 OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Vinculo de sangre" 7 eta 9:30etan.
Novedades: "El asesino del calendario". 10,30etan.
- Goardiako farmazia:
Santiago Español. Iturriotz.

3 LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Melodia de seducción" 5, 7:30 eta 10etan.
Novedades: "El asesino del calendario". 5 eta 7,30etan. "Una árida estación blanca". 10,30etan.
- Bideo emanaldia: "Espioiak gu bezala". Monterron kultur etxean, arratsaldeko 4etan eta 6etan. 50 pta.
- Antzerkia: Teatre de L'Aigua antzerki taldeak "Cogito" antzeslana aurkeztuko du Amaia antzokian, gaueko 10,30etan.
- Goardiako farmazia:
M. Corcuera. Musakola.

4 IGANDEA

- Zinea: Alai: "Melodia de seducción" 5, 7:30 eta 10etan.
Novedades: "Una árida estación blanca". 5, 7,30 eta 10,15etan.
- Omenaldia: Txomin Iturbe hil zeneko 3. urteurrenean, HBK antolatutako omenaldia. Sebero Altube enparantzan, eguerdiko ordu batetan.
- Goardiako farmazia:
Irizar. Erguin.

5 ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Melodia de seducción" 7 eta 9:30etan.
Novedades: "Una árida estación blanca". 7,30etan.
- Goardiako farmazia:
Amesua. Sta. Marina.

6 ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Melodia de seducción" 7 eta 9:30etan.
- Hitzaldia: "Elikadura orekatua" gaiaren inguruan, Ane del Rey sendagileak eskainia. Famili eta Gizarte-Heziketarako Zentruan, arratsaldeko 4,30etan.
- Hitzaldia: "Emakumearen afektibitate menpekotasun-independentsia" gaiaren inguruan, Cristina Garaizabal soziologaren eskutik. 7etan Monterron hitzaldi aretoan.
- Goardiako farmazia:
Aurora Ruiz. Madalena.

7 ASTEASKENA

- Zinea: Alai: ez dago emanaldirik.
- Zine-klub: "Asunto de mujeres". Amaia antzokian, gaueko 8,30etan.
- Goardiako farmazia:
A. M. Morales. San Andres.

8 OSTEGUNA

- Jaialdi antzerkia: Emakumeen asanbladak antolatuta, 8,30ak aldera asanbladaren egoitzan.
- Goardiako farmazia:
Ruiz Torre. Ferrerías.

IKASTAROAK

- **Zanko ikastaroa.** Aizpurutxo taldearen eskutik. 14 urtetik gorakoentzat. Egunean bi ordu arratsalde. Martxoaren 17tik 24era. Izen emateak Arrasateko Gazte Zerbitzuan.
- **Osasun eta kontsumo ikastaroa,** Famili eta Gizarte-Heziketarako Zentruak antolatuta. Asteartero zentroan bertan.

AUTOBUSAK

- Irurzun-Andoain Autobidearen Aurkako Koordinakundeak antolatutako akanpada joateko autobusak. Arrasateko EKik antolatuta. Irteera laurunbatean, hilak 3, goizeko 10etan. Autobusak Portaloitik abiatuko dira.

KAJOI taberna

eta

Patxaran LA NAVARRA-k

Datorren martxoaren 3an Kafe Kajoin arratsaldeko 3etatik 6,30etara egingo den patxarana eta likorea festara gonbidatzen zaituzte.

Eta La Navarrak emandako sari-zozketan parte hartu gura baduzu, jar ezazu zure izena kupoian, moztu eta entregatu Kajoi tabernan.

ERREZETA

Tradizioak zera diosku, patxarana pattarretan fruitua beratuz egiten zela eta ez anisetan, gaurko egunean egiten den bezala; (anisa, pattarra eta aranak) proportzionalki banatzen dira eta bere siloetan homogeneizatu. Botilak egunero egunero eragiten dira, gura diren kolore eta zaporea lortu arte. Prozesua amaitu ondoren, likidoa eta aranak banatu egiten dira.

Destilategia: anisa eta azukrea nitrogeno inerteaz gaineratu, eta argitze eta filtrazioa era berdinez egiten da. Horrela zera daukagu, etxeko patxaranak ez duela lortzen marka desberdinek bere patxaranei ematen dieten zaporea.



ZEMA: Bakartik Kafea, Fata eta Patxaran
 La Navarra Likorea
 Eguna: 1996-3-24an
 arratsaldeko 3etatik 6,30etara
 KAJOI Taberna

1987ko otsailaren 25a. Txomin Iturbe, eguzkitan blai, Argel hiriburu ondoko entrenamendu militarreko zelai batean "pista americana"ko ariketak praktikatzen ari zela. Lagunen barre eta adarjotzeen artean eta oliba berde koloreko entrenamendujantziz zeuden argeliar militarren ardurapean, Txominek proba galanta egin zuen. Politto-politto sokatik gora egin zuen, begirada ortzean galduta zuela eta muskuluak tentsio bizian.

Igoera amaitu ondoren, inork espero ez zuena gertatu zen. Ez dira arrazoiak ezagutzen; zeudenetakoek ere ez dute ulertzen, baina Txomin Iturbe buruz behera jausi zen. Agian zorabioa izan zitekeen. Bete-bete buruan hartu zuen zartada, 4 m-ko altueratik. Seko geratu zen.

...Tomin hil ondoren, ETako zuzendaritza etengabe aldatzen da. Francisco Mugika, 'Artapalo' lehena da orain, baina ez du Iturbek erakundeko kideen artean zuen prestigioa eta errespetua.

...ETAk zein Espainiako Gobernuak uste dute Txomin bizirik balego, Negoziazioak emaitza positiboak eta behin-betikoak ekarriko zituela"

(Melchor Mirallosek "El Mundo" egunkarian)

El Mundo egunkariak igandean kaleratutako informazioa gezur hutsa da, goitik behera. Txomin Iturbe otsailaren 27an hil zen, ez 25ean. Eta kotxe istripu baten ondorioz gertatu zen dena, Macario eta Belenekin zihoala; inoiz ez entrenamendu kanpuan.

Txomin ez zen inor baino negoziatzaileago, ez eta gutxiago ere. Gaur gure artean izango bagenu, bere kideen ondoan egongo litzateke negoziazioaren bila".

(Kepa Ormaetxeak, Arrano Elkarteko prentsaurrekoan).

Galdu egin ote du San Frantzisko Xabier Ikastolak lehenengo urteetako ilusia?

Inolaz ere ez.

Gure ikastolak betiko printzipio eta jokabideei jarraituz dihardu lanean, pedagogia zaindua, euskara eta gestio demokratikoa direlarik bere izakeraren zutabeak.

Gehiago esango nuke: bi bereizgarrik bihurtzen dute oraingo Ikastola 20 urte lehenagokoa baino osoagoa:

- irakaslegoaren heldutasun profesionalak, batetik
- erdaldunen seme-alaben euskalduntze masiboak, bestetik.

Gertatzen da Ikastolaren eginkizuna ez dela orain hain deigarria edo espektakularra, bitartean, instituzioek ere —zenbait eskola eta erakunde barne— euskararen gurdira igo direlako.

Baina zergatik ez da nabarmentzen kalean Ikastolaren urteetako reagin hori?, galdetzen diote (diogu) euren (geure) buruari euskalzaleok. Non dago ikastolan ikasi duten ehundaka eta ehundaka gazteen euskal presentzia?

Ikastolak —eta beste eskolek— arrasatear guztien euskararen ezagupena ziurtatu behar dute: hor hasi eta bukatzen da bere ardura nagusia. Euskararen erabilpen soziala, berriz, eskolari badagokio, dudarik gabe, baina ez zuzenean, edo/eta ez beste giza erakundeei baino gehiago (familia, administrazioa, komunikabideak, enpresa mundua...)

Eta, hori bai, berari dagokion erantzunkizun parte bere gain hartzeko prest egon behar da —eta dago— ikastola:

- bere esparru sozio-pedagogikoan, eta fisikoan, euskararen erabilpena esijituz
- eta herri mailan euskararen erabilpena bultzatzen duten ekimenetan aktiboki parte hartuz.



Jesus Garmendia
S. Frantzisko Xabier Ikastolako lehendakaria



INDUSTRIA ETA AUTOMOZIOTAKO
LABAINGARRIAK BERE INSTALAZIO BERRIETAN

Kataideko Industrialdea 1 eta 2
Musakola z/g 51 postakutxa. Tfnoa: 79 46 33 /78 Faxes: 798411 ARRASATE

AURRERATZEKO

AIZKORA

AUTOZERBITZUA

Maalako Errabala 7, Tfnoa: 79 15 56

beatriz

oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale 11, Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

Martxoko kultur programazioa

Zinema, antzerkia, kontzertuak eta pailasoak

Hona hemen martxoan Arrasaten ikusi ahal izango ditugun kultur ekitaldien zerrenda:

Ostegunetan, 8,30etan, zine emanaldiak Amaia antzokian.

Martxoaren 1ean Jack Sholder zuzendariaren *The Hidden* filmea; martxoaren 7an, Claude Chabrolen *Asunto de mujeres*; 15ean *Pelle El Conquistador*, Bille Augustek zuzendua; eta bukatzeko, 29an, Costa Gavrasen *Consejo de familia*.

Martxoaren 3an, Amaia antzokian ere, "Teatre de l'aigua" taldearen eskutik *Cogito* lanaren antzespina, gaueko 10,30etan. Martxoaren



24ean, berriz, umeentzako antzerkia; *Mutu Liluragarria* lana

"Markelife Mimo Taldea" rekin, arratsaldeko 6etan.

Umeentzako saioa ere martxoaren 10ean, arratsaldeko seieta; Kakax, Kokox eta Kiriki pailazoak.

Musikari dagokionez, esan bi kontzertu antolatuko direla. 17an, gaueko 10,30etan, Nertha taldearen emanaldia. Eta 22an, gaueko 10etan, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa.

Larunbat honetan antzerkia

Programazioa dastatzen hasteko, larunbat honetan bertan *Cogito* lanaren antzespina, "Teatre de l'aigua" taldearekin. Gogoratu 10,30etan hasiko dela. On egin.



Ikastolako neska-mutikoen jaialdia

Otsailaren 26an, astelehena, San Frantzisko Xabier ikastolako 8. mailako neska-mutikoen jaialdi berezia antolatu zuten. Emanaldia Gazteluondoko aretoan izan zen, arratsaldeko 6,30etan.

8. mailakoen asmoa, kurtso bukaeran bidaia egiteko xoxak batzea.

Aretoa jendez gainezka zegoela, hurrek honako egitaraua eskaini zuten: Antzerkia ("Hau desastrea" lanarekin), 60. hamarkadako moda desfilea, musika saioa, bertsolaritza, eta bukaeran egindako zozketa.

LORAMENDI  KIROLAK

BEHERAPENAK

**%10etik %50era bitarteko deskontuak
kirol zapatilatan**

LORATEGI

taberna

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

 **SAMEGO
GARBIKETAK**

Alfonso X. Jakintza, 5
Tfnoa: 79 70 39 ARRASATE

Txandaka

Neo-garizuma

Lehen Instantziako Epaitegia

Enrique Mugika justizia ministriari egindako erreformaren ondorioz, Arrasateko Barruti Epaitegia Bake Epaitegia bihurtu zuen; ondorioz, lehen zituen ahalmen garrantzitsu batzuk galduz. Arrasateko Udaletxean aldaketa ez zitzairen bat ere gustatu, eta berehala ekin zieten Lehen Instantziako Epaitegia eskatzeko lanei.

Hamabi dira Euskal Komunitate Autonomoan, Arrasatek bezala, Lehen Instantziako Epaitegiak eskatzen dituzten Udalak. Euren arteko informazioa trukatu eta ahalekinak biltzeko asmoz, Zarautzen egin zuten bilera astelehen goizean. Xabier Zubizarreta Alkateak eraman zuen Arrasateren ordezkaria.

Bilera amitu zenean, Juan Ramon Gebara, Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailburuarengana joatea erabaki zuten; alde batetik indarrean dagoen legealdi honetan zehar Jaurlaritzak epaitegien kasuan izango duen jarrera argitzeko, eta aldi berean orain ditugun Bake Epaitegien kostoak Jaurlaritzak beregana ditza la eskatu asmoz.

Joseba Korta eta Rafa Etxabe

Joseba Korta eta Rafa Etxabe preso arrasatearrak espetxez aldatu zituzten pasa zen astean. Joseba Martutenera, eta Rafa Iruñeako kartzelara. Sikiera etxetik hurbilago daude biak.

AEDn bertso afaria

Ostiralean, martxoak 2, AEDren egoitzan egingo da gaueko 9,30etan. Gonbidatua Sebastian Lizaso izango dugu.

1.989-ko Udara erdia zen. Estrasburgo nongoen Pragatik etxeruntz nentorrela autoz beste bi lagunekin. Igandea zenez, mezatara Katedralera joan ginen. Eliza gotikoa, mi-resgarria eta zoragarria. Katedralaren ingurua kafetegiz josita, kale txukunak eta etxe zaharrak ondo zainduak eta kolorez pintatuak Alsazian ohi denez.

Meza nagusia bukatu zenean, kanpora atera ginen hirurok. Eta, zer ikusiko...?

Katedral atarian saltoka zebiltzan... han titiriteroak, honuntzago mozorroturik gizon emakumeak, haruntzago pailasoak... nork bere ahalmenak eta habilitadeak erakutsi nahian. Bukatzean, jakina zena: txapela edo panderoa luzatu eta diru eskean.

Ez nekien ametsetan ala benetan zen ikusten ari nintzena eta sentitzen nuena haieran. Erdi Aroko momentu batzuen oroimena zetorkidan burura. Mutiko nintzelarik Erdi Aroko istorioak entzun eta ikasten sentitzen nuena hasi nintzen sentitzen.


Eta hori dena Estrasburgo, Europa Batu edo Baterakoaren zilborrean. Post-industrial den gizarte batetan, eta zenbaitentzat post-moderno den gizartearen bihotzean.

Erdi Aroko giro hartatik, natorren gaurkora.

Karnabal inguruan ari naiz idazten. Herri bakoitzeko C.A.T.-ek, eta Udaletxetako Kultur arduradunak hor ari dira Karnabalak, Aratusteak edo Inñauterietako jaiak prestatzen eta "organizatzen".

Caro Barojak dionez: "Karnabal eta Administrazioa ezin daitezke elkarrekin lotu. Karnabala, zerbait baldin bada "administratu" ezinezko gauza eta une magikoa da: ironia, ankaz gora jartzea, gizartearen eta gizarteak urtean zehar izkutatuturik dauzkan gauzak plazaratzea ezin daiteke "organizatu", are gutxiago "administratu". Horri gatzatza bezala litzeteki.

Arausteak (Carnes tollendas) zerbaiten edo norbaiten "aurkako" festak dira. Eta horrelako zerbait izan da Garizuma. Elizak Eu-



Juan José Goenaga (*)

ropan ezarri zuen urtegarai premiatsua eta gogorarren "aurka". Sufritzen hasi aurretik ondo pasa dezagun. Gero geroakoak.

Karnabal gezatuak Garizuma arina dakarte. Neo-Garizuma. Eta neo...hitza aipatu dudanez gero, nor ez da gure artean zerbaitetan neo...Hemen denok gara edo neo-marxista, neo-kapitalista, neo-liberalak, eta azke-

nengo moda neo-kooperatibista, post-modemoak garelako esaten ez badugu behintzat...

Azkenengo klasifikazioan beren buruak sartuko litzukeenak asko direla gure artean uste dut.

Beraz, ez da arritzekoa neo-garizuma deitzea urtegarai honi. Garizuma arina, garizuma "light".

Gure belaunaldia gaztetxo zenean, orain 20 urte, garizuma beste hitz askorekin loturik zetorren: justizia, solidaritza, fedea, kompromisoa, heldutasuna, desalienazioa.

Gaur, askorentzat (gehiengo batentzat, agian?) garizumaren esanahia udaberrian sartzean datza, eta horregatik Garizuma, Bazko oporrak non igaro pentsatzen hasteko garaia da, edo eta Piriniotara eta Chamoinxera eskapada egiteko aukera, edo ta datorren udaran iaz ezagututako lagunaren artean "look" politago eta ederragoarekin agertzeko preparaketak egiten hasteko saioa, eta hortarako "barau" eginaz kilo batzuk gainetik kendu behar badira, "Barau" egiten da.

Garizuma Kristauren garaia denez, nolabait bizi beharko dugu Palestinan jaito, gurutzetan hil eta biztua izan zen gizon on haren oroitzapena. Garizuma arina ala gogorra, fedea ez dago modaren edo eta bibrazioen morrontzapean. Gizonezkoek eta emakumezkoek irauten duten bitartean "basamortutik" eta "bakardadetik" pasadizo bat egitea ondo etorriko zaio. Garizuma, azken finean, horixe da.

(*) Arrasateko abadea

KiDE

Paperdenda eta jostailudenda

Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

LILURA -ek
zeure moda
diseinatu
eta sortzen laguntzen
dizu

Zerkaosteta 5, behea.
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE



Ikastolaren batzarra

Euskal Eskola publikoaren bidea eztabaidatu

Guraso, irakasle eta bazkideren artean, jende mordoak bildu zen pasa zen ostegunean Santa Agedako andreen ospitaleko batzar aretora, S. Frantzisko Xabier ikastolak egindako Batzar Nagusi Arruntera.

Bai memoria pedagogikoan, bai txosten ekonomikoan, eta bai 89-90eko gestio planean garbi gelditu zen hiru gai daudela ikastolaren etorkizun hurbila baldintzatuko dutenak: alde batetik, datorren ikasturteik hasita Irakaskuntzaren Erreformak ekarriko dituen aldaketak, bestetik Euskal Eskola Publikoaren legea, eta hirugarrenik Gazteluondoko Kiroldegi berriaren eraikuntza.

88-89 ikasturtean ikastolak ia zortzi milioiko galerak izan zituen. Zuzendaritza-Batzordearen ustez oraingoz zor hori asumigarria da, baina hazkunde demografikoak beharantz egiten segitzen badu, he-

mendik gutxira neurriak hartu beharko lirateke.

Iazko memoria eta aurtengo gestio-plana ahobatez onartu ziren.

Interbentzio gehienak laugarren puntuaren inguruan eman ziren. Euskal Eskola Publikoaren bidea ez da batere garbi ikusten. Arrasateko ikastola ez dator bat ikastolen finantzaketaz. Konfederazioak prestatu duen programarekin; ondorioz, programa horri bai edo ez esan aurretik askoz informazio gehiago bildu nahiko lukete.

Hori dela eta, Zuzendaritza-Batzordeak konfidantzazko botua eskatu zion Batzar Nagusiari, informazio gehiago batzen dutenean erabaki zuzena har dezaten.

Batzarrean gehiengo zabalak onartu egin zuen konfidantzazko botua. Azken erantzuna, beraz, mar txoan helduko da Iruñeko bileran

Usteak uste...

Ikustekoak dira herri honek parrandarako dituen gogoak. Ia berrogei urtez eragotzi egin ziguten Haratuzteak ospatzea, eta bazurdi-ien Tolosan eta Lantzen antzeko herri txikietan ezik, lhauteriak hilda zeudela behin betiko.

Diktadorea hil zenetik, berriaz, sekulako indarra hartu dute eta atzoko umeen desfilean ostarkua mila zatitan apurtu zela ematen zuen, hartatik irtendako mila koloreak gure kaleetan barrena barreitu izan balira bezala. Oso festa polita izan zen umeena eta ondo antolatua.

Umeen alboan, helduak ere aprobetxatu egin genuen urtero eta betiko neurak egun batez mozorroari esker askatasun osoz kaleratzeko. Esaidazu nola mozorrotzen zaren eta esango dizut nolokoa zaren. Ez naiz, badaezpada, bide horretatik zehar abiatuko, zeren mozorrotu ez nintzenez, neure utzikeria edo irudimenaren faltaz idatzi beharko bait nuke, eta hori baino ez zait falta.

Atzokora itzuliz, kolore eta irudimenaren loratzea gustatu zitzaizkidan gehien. Hemen ezin Play back jaialdiak izan duen arrakasta ahaztu. Jende asko ikusi ezinik gelditu zen eta ikusi zutenek oso pozik irten ziren.

Bi istripuk lausotu dute aste alai hau. Zirkulazio-istripua bata eta lanean emandakoa bestea. Biak benetan negargarriak, eta bi arlo horietan har ditzakegun segurtasun neurriak beti gutxi izango direla gogorazten digutenak, heriotza heriotzez mozorrotzen denean bildurgarria izan daiteke eta.

Joxea Aranzabal




ETXEPARE - BILINTX LIBURUBENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA

Arrasaten jasotako beira tonatan



Geroz eta beira gutxiago jaso

Aurrerantzean botila guztiak ontzi berera botztzea posible

Sei urte badira gure herrietan beira edo kristala birziklatzeko asmoz, berde edo zuri kolorezko edukinontziak jarri zirela. Ordurarte, botila guztiak zaborretara jaurtitzen ziren, baina harez geroztik, kristala biltzeko edukinontzi horietara botatzera ohituko ginela zirudien.

Hasieran ederto ikasi genuen beiraontzien bidea, baina itxura denez, ohitura hori galdu egin dugu.

Horren ondorioz, zenbat eta botila gutxiago bota beiraontzietan,

Akeiko erraustegian orduan eta gehiago jasotzen dituzte, euren lana garestituz. Adibidez, 89an 320 tona kristal jaso ziren Deba Garaian. Horrekin bakarrik, Akeiko erraustegiak bi milioi pta. aurreratu zituen.

Orain arte kolorezko botilak ontzi berdera bota behar ziren, eta zuriak zurira; baina badirudi etorkizunean denak edukinontzi berberera bota ahal izango direla. Baliteke geroago horien ondoan pilak jasoko dituzten ontziak ere jartzea.

Autobidearen aurka

Jakingo duzuen bezala, aspaldi hasi ziren antolatzen Andoain-Irurtzun autobidearen aurkako akanpada. Larunbat honetan, martxoaren hirua, goizeko 10etan irtingo da portalotik akanpada horretara joateko autobusa. Bertan parte hartu nahi duen edonor, EKItrekin harremanetan jarri beharko da.

Besaideren oharrak

Besaide Mendizale elkarteak bere bazkide federatuei jakin erazi nahi die kametak iritsi gabe daudela oraindik, federazioak dituen arazo informatikoak direla eta. Dena den, laster helduko direla espero da, eta etorri bezain aguro emango da abixua.

Edonola ere, lasai egon daitezke Besaide Mendizale Elkarteak bazkide federatuak, istripurik gertatuz gero, aseguratutik bait daude.

Gogoratu, Besaiderekin lotuta martxoaren 11rako *Etxauri-Sarbil-Munarriz* irteera prestatu dutela. Goizeko 7etan irtingo dira Garibai Etorbidetik. Izen emateak ohizko lekuetan.

Jaiotzak

Iñarra Castillejo, *Erik*. otsailaren 10ean.
Rosado Vinagre, *Daniel*. 20an.
Villalba Tena, *Aitor*. 21ean.
Gomez Beraza, *Josu*. 22an.
Altuna Garai, *Bitor*. 23an.
Martinez Saez de Maturana, *Imanol*. 26an.



Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea
Jose M^a Gomez doktorea
A. Otalora doktorea
A. Estomba doktorea
M^a Jose Ruiz doktorea

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...
Jose Luis Higura: Kirurgia, basktomia...

Antisortzapen-miaketa, minbiziaren diagnostiko goiztiarra, bular patologia, zitologia, menopausia, haurdunaldiaren kontrola, antzutasuna, sexologia, etab.

Lagun-Aro, Asisa, Previsa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, asteleheneetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara eta 3etatik 7,15etara
telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea

ARRASATE

Automobilen aurrikuspena

Udal Biltegian, martxoaren 5etik apirilaren 21era

Arrakasta handiz, iaz *Ecomovil* programa burutu zen Arrasaten. Programa hau automobilak berraztertzeke atera zen aurrera, guztira 268 berebiletan doaneko diagnostia egin zelarik (249 gasolinazko eta 19 diesel); horietatik, 238 konpontzeko egoeran zeudela ikusi zuten.

Programa hau *Cademek* antolatutuen Arrasateko Udalaren laguntzarekin, eta aurten ere esperientzia errepikatu egingo da. Martxoaren 5etik apirilaren 21 arte zabalduko da 432 automobil aurrikusteko epea.

Tokia, Errekalde kaleko Udal Biltegia izango da; ordutegia, oster, asteleheneetik ostiralera, goizeko 10etatik ordubatak arte, eta arratsaldeko 3,30etatik 6,30etara. Larunbatetan, 10etatik ordubietara soilik.

Ibilgailua berraztertu gura duen edonork txartel berezia erakutsi beharko du, dagokion eguna eta orduarekin; txartel hau diagnosi lekuan bertan luzatuko da, martxoaren 5etik aurrera.

Programa honen helburua: erregaiaren kontsumoari, inguruaren kutsadurari eta zirkulazio-seguritasunari dagozkion anomaliak antzematea.

Horrela, besteak beste honako



Komeni zaie bai kotxei noizean behin berrikuspena egitea

puntu hauek aztertuko dira: Nibelen kontrola eta estankotasuna, zilindroen konpresioa, bateria eta kargazirkuitoa, banatzailearen kontrola, pizteko-sistema, gasolina-ponpa eta karburatzailearen kontrola, ihes-gasak, erregaiaren kontsumoa, pneumatikoak, esekidura, etab.

Azterketa egin ondoren, *Cademekin* kontzertatutako edozein tailerretara joan ahal izango da; erabilitzaileak, lanekuari dagokionez

%30eko beherapena izango du kotxearen konponketan, horretarako *Cademeko* teknikariek luzatutako inprimakia erakutsi beharko delarik, nahitanahiez.

Kontzertatutako tailerrak, printzipioz iazkoak izango lirake; hau da: *Meca*, *Kanpazar*, *Mugarri*, *La Union* eta *Txapime* Arrasaten; *Garage Norte* Aretxabaletan; eta *Aitor Automoviles* eta *Txoko Tailerra* Bergaran.

LASAGABASTER

Jantzidenda

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena

Garibai 9, Tfnoa: 79 89 97



Martin Ibabe langilea Amaten hil

Jan den astelehenean, arratsaldeko erreleboa amaitzear zegoela, Martin Ibabe langilea hil egin zen, granailatzeko makinak burua txakitu zionean.

Martin aramaioarra zen eta 64 urte zituen. Gazte denboran aizkolari izandakoa, urtebete falta zitzaion soilik jubilazioa hartzeko.

Istripua *Amat* kooperatibak Menditxebarrin duen galbaniziorako plantan gertatu zen, gaueko bederatzirak inguruan.

Martinek granailatzeko makinan zihardu lanean, ohizkoa zuen bezala. Aipaturiko orduan, gorpua

goiko plataforman agertu zen (eta ez bere tokian, behean). Lekukorik ez, eta ondorioz oraindik ez dakite ziur nola gertatu ziren gauzak.

Asteartean bertan, Eusko Jaurlaritzako Industri saileko bi ikuskatzaile heldu ziren Amatera, makinaren segurtasuna neurtu eta istripuaren simulazioa egitera.

Hauxe da Amaten historian lanean gertatu den lehen heriotza. Egun hauetan dolu giroa zen nagusi lan-bazkideen artean.

Hildakoak emaztea eta sei seme-alaba utzi ditu; eurretari hiru *Amaten* daude lanean. Doluminak.

Roneoko langileak lanera itzuli

Arrasate Press ostegun goizean bidaltzen dugu inprentara, eta handik ostiraletan etortzen zaigu bueltan, gero zuon etxeetara banatua izan dadin.

Aurreko alean, guk zenbakia inprentara bialdu genuenean *Roneoko* langileak greban zeuden oraindik. Alea banatu orduko, osterara, arazoak konpondu eta jadanik langileek egun t'ardi zeramaten lanean.

Gogoratuko duzuen bezala, greba *Roneoko* zuzendaritzak Oskar Marko mantenimenduburua kalera-tu zuelako egin zen. Azkenean, Zuzendaritzak Oskar Marko berriro onartu behar izan zuen, eta ondorioz, langileak lanera itzuli ziren ostegun arratsaldean.

Etorkizunean, badirudi enpresak Logroñora bialduko duela Oskar Marko mantenimenduburua, honen onesperekin, noski.



Jose Aranzabal

ELEKTROGAILUAK

Iturriotz 15,

Tfnoa: 791516



AKOBEREren garantia eta zerbitzu teknikoarekin

KOLTA

FAGOR SUKALDEËN
HORNIDURA OSOA
OPARIGAIK

Doctor Bañez 8, Tfnoa: 791892



L ARRINGAN

auto gidarien eskola

**KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN**

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE

Irasuregi, espetxe militarrean

Elkartasun ekintza ugari gazte insumisoaren alde

Euskal Herriko gazte gehienok bezalaxe, hemeretzi urte dituen Iñigo Irasuregi arrasatearrak ez du soldaduzka egiterik nahi.


Zozkatu zutenean, Ferrolera joatea tokatu zitzaion; agindua, 1990eko lehenengo errenplazorako zen.

Egoeraren aurrean, Iñigok insumisotzat jo zuen bere burua. Pasa zen ostiralean Donostian egon zen abokatuarekin, bere egoera epaile militarrekin aztertzeko; baina epaile horrek ez zion inolako kasurik egin.

Astelehen eguerdian, paisanoz jantzitako goardia zibilak agertu ziren Ulgorren (non Iñigok lan egiten zuen), eta gaztea atxilotu egin zuten. Goardia zibilek Intxaurrendora eraman, eta handik Ferrolera bialdu zuten.

Asteazkenean, Ferroleko Epaile militarrek Alcalá Mecoko espetxe militarrean bete beharreko gartzela zigorra ezarri zion, eta dagoeneko Madrilera kartzelara dago Iñigo.

Irasuregirekin, 6 gazte dira Estatu espainiolean insumiso izateagatik espetxean daudenak: 2 Bartzelona-koak, 3 Burgoskoak, eta orain arrasatear bat.



Iñigo Irasuregi, 19 urteko gaztea

Haren askatasuna lortzeko asmoz, hainbat ekintza burutu dira Arrasaten, eta hurrengo egunotan ere beste hainbat ekintza aterako dira aurrera: karteladak *Casa del Pueblon* aurrean, trafiko mozketak, ostiral honetarako burutu nahi den ikasle-greba, etab.


Era berean, zinadura-bilketari ekingo diote, gero Arartekoarengana joan eta honek parte har dezan Iñigoren askatasuna lortzeko jarraitu beharreko prozesuan.

Txomini omenaldia

Txomin Iturbe kotxe istripuz hil zen Algerian, 1987ko otsailan. Bere heriotzaren 3. urteurrena gogoratzeko, HBk omenaldi berezia prestatu du igande honetarako.

Asteazken arratsaldeko prentsaurrekoan aditzera eman zutenez, ekitaldi politikoa Sebero Altube plazan izango da, eguerdiko ordu batean hasita. Bertan txalaparta saioa, bertsolariak, eta ekitaldi politikoa burutuko dira (hizlariak: Xabier Zubizarreta, Joselu Zerezedeta eta mahai nazionalera parteide bat).

Aurreko urteetan omenaldira-ko deia nazio osorako zabaldu bazen, honako honetan Deba Gairra mugatuko da. Ekitaldi guztia ideia baten inguruan: *Bakearen zutabea: negoziazioa*



Onduline **TXOMIN HERIZ**
 eraikuntzarako materialak
 URALITA
 Biltegia: Bidekruzeta 1. Tfnoa: 79 23 18 ARRASATE


VE ECUADOR
 Kontzesifno 2,
 Tfnoa: 79 14 06
 ARRASATE

ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA
BAZAR
 TOKI ON
 J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64

URREZKO BITXIAK
ERLOJUTEGIA
 Erdiko Kale 23, Tfnoa: 79 20 47
 ARRASATE
NAROKI



Haratuzte asteartean, Lasarteko hiru pailazo ezagun hurbildu ziren Arrasatera: *Takolo, Porrotx eta Pirrutx*. Inon aldagelarik aurkitu ez, eta azkenean Ospitale Zaharrean utzi zituzten trasteak. Unetxo bat aprobetxatuz, *Arrasate Pressen* sartu ziren bixita egitera. Argazkian, ezkerretik eskumara *Porrotx, Elena, Takolo, Josune, Karmele eta Pirrutx*.



Larunbaterako, Haratuzte egitarauaren barruan bi ekitaldi egon ziren gure haurrek benetan dastatu zituztenak. Alde batetik, goiko argazkian ikusten duzuen *Sokamuturra*. Hasieran mutiko mordoia, baina *bigantxak* indarrez agertu zirenean, asko eta asko bapatean desagertu ziren. Gero, ohizkoa den bezala, batzuk txaloak eta beste batzuk kriston jipoiak jaso zituzten. *Sokamuturra* amaitzean *Ponyen txanda* heldu zen. Zalditxoek izugarrizko arrakasta eduki zuten gure txikien artean. Animalia hauek maitakorrak dira asko, eta batzuk nahiago izan zuten *Ponyen* lasaitasuna gozatu, *bigantxen* adarrak probatu baino.



◀ Arrasate Pressek harpidedun berria du Valentzian gaugeroztik, Frantzisko Aranbarri mondagoetarra hain zuzen ere. Kanarietan bost urte egin ondoren Fagor enpresako ordezkari moduan, orain Valentzian dago Fagor Climaren arduradun lanetan. Argazkian, *Mikel Arrieta eta Frantzisko Aranbarri* Albufera inguruan.

AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN



- Gogorak
- Porodunak
- Bigunak
- Kosmetikoak
- Erabilipen iraunkorrekoak

**Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa!
Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU**

Zure betaurreko eta lentilan aseguruia dohainik

Kontzeziño kalea 6, Tfnoa: 79 25 98 Arrasate



◀ Joan den larunbatean MaxiEroskik Bilboko Errekaldeko Zanko Eskolakoak ekarri zituen Arrasatera, nahi zuten umeei dohainik zankoetan ibiltzen irakastera. Umeak barra-barra bildu ziren bertara. "Pildora" k goizean ipurdiko ederrak hartu zituen arren, arratsaldean itzuli eta azkenerako ederto asko menderatu zituen egurrezko hankak. Haren ondoan Agustín, irakasle bilbotarra eta neskatxa hasi berria.

izen propioak

■ Antonio Arregi, 51, oñatiarra, Quitoko Gotzain Laguntzaile berria dugu. Antonio Opus Deiko apaiza da eta Quitoko apezpikutarren konfederazioko idazkari nagusia. Erroman Zuzenbide Kanonigoan doktoretza atera zuen eta Nafarroako Unibertsitatean Zuzenbide Zibilean.

■ Carlos Redondo, 42, Arrasaten bizi den ordiziarra, Ikerlaneko zuzendari-gerente izendatu dute urtebeterako Manolo Quevedoren ordez. Carlos, zazpi urtez Ikerlaneko zuzendaritza zientifikoan aritu da eta lehenago zentruan bertan, ikerketa lanetan. Eskola Politeknikoan ere arizan da lanean. Goi mailako injinerutza ikasketak burutu zituen.

■ Alberto Agirrezaldegi, 37, elgetarra, "Heriotza Euskal Herrian" liburua kaleratu berri du. Alberto Filosofia eta Letretan lizentziatu da eta Uzeiko zuzendaria. Eibarko ikastolan eta Fagorren ere lanean aritutakoa da.



Pedro Luis

Aiberto Elorza eta Susana, Arantzazuko eleizan ezkondu ziren. 1990eko Errege egunaren bezperan gertatu zen hori, urtarrilaren 5ean hain zuzen ere. Mila zorion hala hasi duten hamarkadarako! ▶

prest ✚

ZENTRO PSIKO-MEDIKOA

Carlos Gerra 1, 3. Tfnoa: 77 08 96 ARRASATE

GIDA TXARTEL ETA ARMA BAIMENETARAKO MIAKETAK

Udalako Ingurugiro Eskola

Arrasateko Udalaren aspaldiko asmoa gauzatzeaz

Udalako auzo eskola mende honen hasieran eraiki zen, auzoko hurrek herrira jaitsi beharrik izan ez zezaten. Baina urteak pasa eta eskola hustu egin zen. Gaur egun, Udalako auzo eskola hutsik eta egoera nahiko kaskarrean dago. Teilatua duela zenbait urte konpondu zioten eraikuntza behera etor ez zedin, baina gainontzekoa erabat hondatuta dago.

Arrasateko Udalaren asmoak betez gero, datorren ikasturte hasieran Udalako eskola berriz ere hurrez beteta ikusiko dugu, baina oraingoan Ingurugiro Eskola bihurtuta.



Eskola barrutik oso hondatuta dago

Ingurugiro Eskolaren hastapenak

Gaur egungo gizarteak duen arazoetariko bat kutsadura dela ezin ukatu. Prentsan zein komunikabideetan orohar, gai honen inguruko berriak sarritan entzuten ditugu. Bestalde, gure ingurugiroak, aldaketa azkar eta garrantzitsuak jasan ditu azken urteetan. Pagadiz edo haritzez osatutako basoak, pinadi bihurtuta ikusiko ditugu gaur, edota duela ez hainbeste landak baino ez zeuden lekuetan auzo oso bat ikusiko dugu.

Aldaketa horiek gizonarengan duten eraginaz jabetzeak duen garrantzia litzateke Udalako Ingurugiro Eskola (EMA) sortzeko Udalak kontutan izan duen arrazoietakoa bat. Edonola ere, ez da arrazoi bakarria. Udaleko Hezkuntza Batzordean lanean dihardutenek, industriek eta

hiritarrok ingurugiroari dagozkion arauak betetzeak duen garrantziak, eta arau horiek betetzeko herritarrak sentsibilizatzea ezinbestekoa dela ere izan dute kontutan. Hezkuntza osagarriak garatzen ari diren honetan, ingurugiro hezkuntza, hezkun-

tza osagarri deituriko horietan sartzea eta Udalak bultzatzea ere interresgarri ikusi dute.

Asmo aldarrikapena

Udala auzoko Ingurugiro eskola sortzeko bideak jorratzen hasteko,

Udalak iaz txosten bat burutu zuen, bere asmo eta proposamenak bertan azalduz. Txosten honen arabera, natura eta nekazal munduaren eza-guera bultzatzea, ingurugiroarekiko sentsibilizazioa eta heziketa lortzeko azpiegitura egokia sortzea, inguru erabat euskaldunean euskara lantzea eta dagoeneko burutzen diren zenbait ekintzari luzapena ematea –aste bukaeretakoa ekintzak– lirateke Udalako Ingurugiro eskolaren helburuak.

Edonola ere, Udaleko Hezkuntza batzordean adierazi digutenez, hasierako txosten hau egin zenean inork gutxik zekien benetan egin nahi zena. Eskola, natur zientziak emateko beste txoko bat bezala ikusten zela esan daiteke. Granja eta ortua bertan antolatzeak asmoa zegoen eta hurrei nekazal munduko ohitura eta hango lana erakusteko.

Denbora pasa ahala eta proiektua gauzatzen joan den heinean hasiera-ko asmo hauek aldatu egin ziren

Orain dela bost hilabete Udalak Candi Fernandez, irakaslea kontratatu zuen, besteak beste EMA proiektuaren helburu pedagogikoak finantzatzeko. Horrez gain, plangintza pedagogikoa burutu, Eskolako arautegia egin, materiale didaktikoa zehaztu eta eskolak behar izango

35 miliolioko aurrekontua du Eskola honek; Foru Aldundiak 25 milioi jarriko ditu eta gainontzekoak Udalak

duen pertsonala zehaztu beharko du.

Berak aitortzen digunez, lanean hasi zenean mundu nahiko arrotza egiten zitzaion Ingurugiro Eskola. Zerbait entzuna omen zuen baina besterik ez. Proiektua gauzatzeko asmotan, Eusko Jaurilaritzako Hez-

kuntza Sailera eta Estatuan eta Euskal Herrian bertan dauden ingurugiro eskoletara jo zuen informazio bila. Honez gain, Pagoeta eta Sukarrietako eskolak eta Bartzelonako *Eskola de Natura* bi ere bisitatu dituzte.

Eskoriatzako Irakasle Eskolarekin hitzarmena

Eskoriatzako Irakasle Eskolak, bide berriak jorratzeari ekin dio, bertako ikaslegoari eskola mundua baino irtenbide zabalagoak eman nahian. Horrela, kontsumo, ikus-entzute edota ingurugiro ikastaroak eskaintzen hasi da. Udalak, EMA gauzatzeko laguntza ezin hobea eman ziezaiokola pentsatuz, eskola honekin hitzarmena sinatu zuen, proiektuan bertako irakasleak integratuz, Candirekin batera, bertako hiru irakaslek lanean dihardute. Udaletxan adierazi digutenez, eskola honen laguntza oso garrantzitsua suertatu da.

Lan honen ondorioz, hasierako asmoetatik aldendu egin da proiektu-



Eskolaz gain, inguruko landa eta bideak konpondu behar dira.

gehienak 30 ume baino gutxiagok osatzen duenez, txanda bakoitzean gela batek hartuko du parte. Eskolak oheak eta sukaldea izango dituzenez, haurrek bertan lo egiteko aukera izango dute.

Hiria eta auzoa ikasgaia hartu dute eskolan azalduko den lehen gai gisa. Ingurugiroa animalia eta landareek bakarri ez dutela osatzen umeei

roaren egoerarekin zerikusia duten gaiak aztertuko dira eta haurrek azaltzen den herrian ikusteko aukera izango dute.

Proiektuak hogeitamabost milioiko aurrekontua du. Gipuzkoako Foru Aldundiak hogeitamabost milioiko dirulaguntza emango du eta gainontzeko kostoa udalak bereganatuko du. Eskolan lanean arituko den irakasleagoa oraindik zehaztu gabe dago. Arrasateko Udalak, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari EMAko irakasleagoaren kontratazioa bereganatzeko eskatu zion, baina honek ezezko erantzuna eman duenez, konpondu gabe dago arazou.

Arrasateko Eskola Kontseiluak ere proiektua aztertu du eta Eskola guztiek ezagutu eta alaketak edo proposamenak egiteko aukera izan dute. Zailena beraz, eginda dagoela esan daiteke. Eskola konpondu eta umeak bertan ikustea baino ez da falta. Baikorrenek Ekainerako martxan ikustea espero dute, besteei datorren ikasurte hasieran.

Bi egun edo astebeteko egonaldietan joan ahal izango dira haurrak. Aldi bakoitzean hogeitamalauren bat

tua. EMAn herriko haur gehienei parte hartzeko aukera eman nahi bazaie ere —eta posible balitz bailarakoei ere bai—, seigarren mailako haurrei begira antolatuko da. Gai zehatzak landuko dira bi egun edo astebeteko egonaldietan. Egonaldi bakoitzean hogeitamala haurrek hartuko du parte. Gaur egun ikasgela

irakastea litzateke eskolaren helburua.

Hiriaren problematika aztertu nahi da. Bertan sortzen diren zarata, usain txarrak, etab.en zergatia eta egoera azalduz. Bestalde kutsadura ere aztertzeke asmoa dute eta honen ondorioetan sakontzeke Eskolan, azken batean, Arrasateko ingurugiro-

**AUTO
ESKOLA**

ARRASATE

7etatik 8etara klase teorikoak

Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE ZERBITZURAKO



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Guipúzcoa

HARATUZTEAK 90



Joan dira Haratuzteak, sutan erre dugu sardina eta gorde ditugu urtebetez mozorroak.

Bixamona jasangarriago egiteko, ez zaigu ideia txarra iruditu mozorro eta jantzi, play-back eta abesti artean arrasatearrok pasa ditugun une zoro, barre eta algarak gororatzea.

Hurrengo arte Haratuzte maitea!!!

Argazkiak Joseba

**Monte
taberna**

Maalako errabala 11, Tfnoa: 79 20 56

Lore lurrindegia

Olarte kalea 10. Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE



Normalean haurrek nahi izaten dituzte puxikak, baina emakume hau ondo pozik zegoen bereekin. Noizean behin txikitako ohiturak gogoratzea ez dator txarto.



Olé! Irakasle eta idazle ospetsuren batek ere, bere izkutuko zaletasuna kaleratzeko aprobetxatu zuen eguna. Zer esango ote dute zure ikasleek, Gerardo?



Dirudienez ume hauek, asteartea aukeratu zuten elkarri betirako maitasuna agintzeko. Haratuzteetan edorzer gauza!



Larunbat gauean, Amaia Antzokiak aspaldi ez bezalako betekada izan zuen. Play-back jaialdia arrakasta osoz burutu zen. Hona hemen, Monserrat Caballe eta Fredy Mercuriren saioa. Gaueko unerik zirraragarriena.

ESTETIKA ZENTROA
lurrundegia, opariak, jostailuak

Zarraoa

Kanpantorpea 4, Tfnoa: 79 12 19

Lua
gozokiak

Erdiko kale 8,
Tfnoa: 79 66 75 ARRASATE



Umorea behintzat ez zaie falta egunero Portaloian kupoiak saltzen egoten diren ama-alabei. Horrela segi!




Zenbait ordutan umorea nagusi, gero izango ziren kontuak aurpegi eder horietatik pintura kentzeko. Baina horrek zer axola dio, ba?



Maribi Barrenak eta Antton Herrerok makinatxo bat lan egin behar izan zuten honako karroza ederra egiteko. Hala ere, ez zuten alperrik lan egin, haurrak zoratzear egon ziren eta, pailazo handiaren inguruan.

Alargun honi,
ondo azkar
ahaztu
zitzazkion
penak.
Deskuidatuz
gero,
errefajoa ere
erakutsiko
zigun.



ASEGURU ARTEKARIA

Zure esanetara
gauzkazku!

Maalako Errabala 33, Etxabea.
Tfnoa: 79 69 00. Fax: 79 69 43 ARRASTE

Musikazalea adi!!!



(Hi-Fi) Fidelitate Handiak 41 urte ditu. Merkatuan salmenta-bolumen garrantzitsua suposatzen du.

Hi-Fi elementu banatuek osatutako kateak da, oso desberdinak direlarik monomarka kate konparatuak. Hi-Fi espezialisten eta goi mailako espezialisten merkatu bat da. Fabrikatzaile desberdinen artean bakoi-tzak goian egon nahi du, katearen elementuetako batean; aurreanplifikadore, amplifikadorea, tuner-a, platina, phonoa, kasettea, laser irakurlea, kaxa akustikoak edo bozgoragailuak.

Guzti honetarako produktu hau saltzen jarraitu nahi duten merkatariek ondorengo puntuak izango dituzte kontutan:

— Ahalegin tekniko eta informatiboa egin bezeroei ekipoaren elementu garrantzitsuenetako bat zein den adierazteko: kaxa akustikoa.

— Joera berriak erakutsi beharko dituzte, audio-bideo katearen jaiotzea eta E.D.K eta D.C.E merkatura heltzea bezala.

(E.D.K.) Erregistro bakarreko disko konpaktua, kalitate originala gordez

(D.K.E.) Disko konpaktua; nahi besteko ezabaketa egin daiteke, kalitatea galdu barik.


Azken bi produktuetako edozeinetan grabadore bat erosi beharra sortuko da, laser platinari egokitu beharko zaiolarik.

(V.D.K.) Audio eta

bideo disko konpaktua batera, eta V.D.Kren kalitatea ezin da gonbaratu soinu edo irudi arloan, audio zen bideo kasetteekin.

V.D.K. etorkizuneko sistema

V.D.K. sistemak disko konpaktuaren soinua hartu eta handitu egiten du kalitate handiko bideo-irudien edizioarekin,



bideo kasettea hondatzeko problemarik gabe.

V.D.K sistemak disko desberdineko 5 formato du, lau neuritan 8, 12, 20 eta 30 zm. Hauek erreproduzio-denbora desberdinak ematen dituzte.


Denek dute erreproduktore berean erreproduktzeko ahalmena eta telebista eta ohizko musika-ekipoen bidez entzuteko abantaila.

V.D.K. sisteman bideo-irudiak erreproduzitu ahal izateko informazioa soinua erreproduzitzeko erabiltzen den baino askoz aguruago prozesatu beharra dago. Horregatik, V.D.K. sistemako diskoen rodakzio-abiadura Disko Konpaktuena baino 4 bider haundiagoa da. Erabiltzeko den formatoaren arabera da

abiadura. Disko konpaktua etengabeko abiadura linealean erreproduzitzen dira: laseretik pasatzen dena beli abiadura berean. Hala ere, diskoaren rotazio-abiadura 500

tzeko informazioa irakurtzeko.

Mota honetako izpi batek ez du desgasterik sortzen diskoan, ez eta afektatzen ezer grabatutako azalera.



r.m.tik 200 r.m.ra jaisten da, diskoa irakuri ahala, barrutik kanpokaldera.

Irakurketa optikoko sistema izanik, V.D.K. sistemak potentzia txiki-ko laser argi-izpi bat erabiltzen du diskoan graba-

lzia laser batek sortzen du, oso argiturri kontzentratua, prezisio handiz enfokatzeko gauza dena. V.D.K sistemak darabilen laserra arseniko-galio aluminioko unitate erdieroalea da, argi

infragorri ikustezina ematen duena.

Irakurketa optikoko sistemarekin prezisio haundiko irakurketa lortzen da, edozein irakurketa-sistema mekanikoz inoiz ezin lor daitekeena.

“Plastika klaseari ez zaio garrantzirik ematen”

Bea Arregi, hamaika urtez biharko irakasleei plastika erakusten

Bea Arregi arrasatearra dugu Eskoriatzako irakasle Eskolako plastika irakaslea. Urtetan ari izan da lan horretan eta gogoz hitz egiten du bere lanaz. Gustatzen zaiolako hasi omen zen eskulanak ikasten eta bere kontura edo ikastaro ezberdinak burutuz, ikasi du gaur egun dakiena. Bere hitzetan gauza guztietan bezalaxe, aritzea da honetan ere trebetasunaren giltza

— *Arrasate Press: Badi-rudi, eskoletan eskulanei garrantzi gutxi ematen zaie-la. Eskulan klaseen helburua zein litzateke?*

— Behar bada topikoetan erortzea da, baina beti aipatu izan diren helburuak izan behar litzukete eskulan edota plastikako klaseek. Klase hauek, irudimena lantzeko, sormena zabaltzeko, eskuak lantzeko, trebetasuna lortzeko balio behar lukete.

— *Plastikaz eta eskulanez hitz egin diguzu, gauza bera dira biak, ala desberdinak?*

— Desberdintasuna egon badago. Nik desberdintasun hori somatzen dudan arren, azaltzeko nahiko zaila dela ikusten dut. Eskulanak, eskuen bidez egiten diren gauzak dira. Eskulanak, eskuak lantzeko eta irudimena lantzeko egingo ditugu. Gure lan horrek, fruitua emango digu, gure eskuekin egindako zerbait lortuko dugu.

Plastika berriz, beste mundu bat da. Plastika klaseetan, argiaren koloreak bereizten edota bolumena lortzen ikas dezakezu. Plastika klaseek ez dute zertan eskulanak izan. Plastika klaseak, sormena lantzeko edo aurkitzeko bidea izan behar lukete.

Plastika eta eskulanak desberdinak dira eta baloratu ere desberdin egiten dira. Arte plastikoetan aritzen

denak gizartearen errekonozimendua jasotzen du. Eskulanetan ari denak, aldiz, “manitas” definizioa jasoko du, baina ez zaio garrantzirik emango.

— *Eskoletan plastika klasea “maria” izan da beti. Zure eritziz hori zergatik ematen da?*

— Batetik, jendea ez delako gertatuta egoten eta irakasleek, plastika klaseetan zer egin ere ez dutelako jakiten. Nire ustez, irakasleek elkarri plastika klasean zer egin behar duten galdetzen diote, eta “Ah, hori egin behar duzu? nik ere gauza bera egingo dut”. Fenomeno hori ematen dela uste dut. Batek gauza bat egitea pentsatu eta aldamenekoak ere gauza bera egingo du. Batak



Bea Arregi

tzona handia zara, baina eskulanetan ona izanez gero, ba...

Denbora falta ere kontutan izan behar da. Plastika, irakasle batek eman behar dituen ikasgaietako bat baino ez da. Eta plastika klasea ondo emateko, orduak sartu beharra dago, horretan aritu beharra dago.

— *Eskulanetarako, berezko trebetasuna izan behar da ala aritzeaz nahiko da?*

— Beno, edozein ikas-

oraindik ez dutela ondo egiten ikusiko duzu. Baina horiek ere, seigarren aldiz egitean ondo egingo dute. Aritzea besterik ez da.

— *Sarri askotan entzun izan dugu, neskak punto eta mutilek marketeria ikasten dutela. Oraindik ere, hori gertatzen dela uste al duzu?*

— Ez, ez dut uste. Nik hemen inguruko eskolak ezagutzen ditut eta ez dut uste horrelakorik gertatzen denik. Nik ere, nire ikasleei gauza bera eskatzen diet. Edonola ere, irakasleei birziklatze ikastaroak eman izan dizkiet, eta zenbaitetan entzun izan ditudan komentarioak direla bide, edota klasean izan duten jarrera dela medio, irakasle horiek klasean zer egingo duten somatu izan dut. Edozein modutan ere, gaur egun desberdintasun hori, gizartearen bertan dagoela uste dut. Telebista piztu eta harrikoa egiten emakumea ikusiko duzu, edota emakumeei zuzendutako punto aldizkariak saldu nahi izango dizkiguteç. Guzti horrek guk nahi izan edo ez, klasean eta hurrengan eragina du.

“Eskulanetan ona dena, ‘manitas’ baino ez da izango jendearen ustetan”

bestearena hartzen du eta asuntxo nondik nora doan ere ez dakite. Hartu, edozer gauza egin eta kitto. Irakasleek, beraz, ez diote inolako garrantzirik ematen eta irakasleek garrantzirik ez ematean irakasleek ere ez.

Azken finean, eskulanak baino ez dira. Jendeak horrelako gauzei ez die inolako garrantzirik ematen. Idazten ona izanez gero, per-

gaitan bezalaxe, batzuk berezko trebetasuna edo erraztasuna izango dute eta beste batzuk landu egin beharko dute. Hau da, matematiketan ona ez denak, edo matematikak zailak ikusten dituenak, ikasi egingo du ikasgaia gainditzeko. Hemen ere gauza bera. Zerbait esplikatzen eta batzuk berehala hartuko dute, beste batzuk, berriz, hiru edo lau bider egin eta



Santxeskiz josita

Inolako zalantza barik, sasoi onean daude santxeskiak gure gaztetxoaren artean. Larunbatean, Haratuzte egitarauaren barruan antolatutako eshizioa ikusteko makina bat neska-mutiko hurbildu ziren Zaldibarrera. Proba ez zen, ez, ikusgarriena izan; baina halere, txalo zaparrada beroak jaso zituzten Santxeskilari bizkaitarrek.




Gipuzkoako Igeri selekzioa

Larunbat arratsaldean, Tolosa eta Arrasate Igeri taldeetako neska-mutilak izan genituen aurrez-aurre Musakolan, Gipuzkoako selekzioa osatzeko egindako probetan. 50, 100 eta 400 metroko saioak ikusi genituen. Emaiza onak, eta badirudi sei arrasatear joango direla Bartzelonara, bertan antolatuko diren Espainiako txapelketetara.



Rugbyan porrot

Getxo taldeak izugarritzko errebasoa eman zion Arrasate Kirolak Rugby taldeari Iturripen; 13 eta 34. Ligako azken ihardunaldia Bilbon jokatu beharko dute gure jokalariek. Gauzak zail xamar jarri zaizkie, eta badirudi mailari eusteko promozioan aritu beharko direla; badirudiela esan dugu, baina agian aurkakoa erakusteko gai izango ditugu. Ea ba. zorte on!



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburusak
- Merkatal Inprimakiak
- Bulegoko materiala

podiuma

**Pello Urreta,
albatros bihurtu
nahian**


Pelok 18 urte ditu; dagoeneko hamar bat pasatu dira igerian hasi zenetik, eta gutxika-gutxika landutako hobekuntzaren ondorioz, martxoan Bartzelonara joango da Gipuzkoako selekzioarekin.

Berrogeitamar, ehun, berrehun eta laurehun metroak egiten ditu, baina, hori bai, bere preferentziak argituz. "200 metroak atsegin ditut. Ez dakit, gustora aurkitzen naiz proba horretan, abiadura eta fondoaren arteko nahasketan".

Orain bi urte Pelok aletak probatu zituen. "Ordurarte igeriketa klasikoan, baina aletekin hasi nintzenetik modalitate hau aukeratu nuen. Seguraski giroagatik; auskalo zergatik, aletekin ibiltzen den jendea klasikoan ari dena baino askoz jatorragoa da".

Gaur egun, Pelok Gurutze Gorrian dihardu soldadutza egiten. "Faena da, denbora gutxiago edukitzen dut entrenatzeko. Hiru egun soilik astean, eta hori igerri egiten da. Soldadutza bukatzen dudanean gauzak serioago hartzeko asmoa daukat; edo behintzat, egunero entrenatuko dut, eta denboraren poderioz ea Espainiako errekorren bat hausten dudan; 200 metrokoa, hori lortzea gustatuko litzaidake".

Tira ba, argi ikusten du bere erronka, eta bide onetik doa Pello



amets hori eskuratzeko. "Bai, itxura denez, Bartzelonara joango naiz Gipuzkoako selekzio absolutuarekin. Hainbat proba egingo ditut han, bai bakarka eta bai errelebotan. Ikusi egin behar nola ateratzen zaizkidan gauzak".

Lehiaketak eta markak aparte utzita, nabari zaio, bai, atsegin duela Igeri taldea. "Nik aholku bat eman-go nioke jendeari, etortzeko. Giro polita aurkituko dute hemen, eta igerian egitea 'flipe' hutsa da. Gainera erabateko kirola da, gorputz guztia lantzen duzu. Eta beste gauza bat, fijatzen bazara, hemen ez dira ematen beste kiroletan ikusten diren lesio arriskutsu horiek. Zerbaitengatik izango da".

Ziur baietz, zerbategatik izango da.

Direnak direla, zuk behintzat, Pello, eutsi gogoz Espainiako berrehun metroko errekorra hausteko ekin diozun bideari; gaurtik aurrera, Arrasateko herria horren zain izango duzu eta.

■ **Mondrak 2, Galdakaok 0**

Aranburuzabalak lehen 20 minutetan lortutako bi goli esker irabazi zuen Mondrak igandean.

Honenbestez, arrasatearrak sailkapeneko 12. postuan, 24 puntu eta 2 negatiboz. Asteburu honetan Bizkaian jokatuko dute, Sodupe taldearen aurka.

■ **Pedruskok berdindu**

Alberto Ozaetak 0-3ko emaitzaz aurreratu zuen bere taldea, baina Aranako ekipoko jokalariek azkenean berdintzea lortu zuten: 3 eta 3. Igandean Atxabalpe alboko zelaian, Pedrusko- Aranbizkarra.

■ **Saskian txarto**

Joxe Mari Balzategiren mutilak zeharo aldatzen dira etxetik kanpo jokatzen dutenean.

Igandean ere, Portugaletera joan Jarrileros taldearen aurka indarrak neurtzera, eta 80-62 emaitza eskaxa eskuratu zuten gure jokalariek. Larunbat honetan, aukera polita Barañain taldearen aurka, Musakolako kiroldegian.

■ **Pena eskubaloian**

Arrasate kirolak eskubaloi taldeak ez zuen bat ere zorte onik izan Zumaian, Pulpo taldearen aurkako partiduan. Neurketa guztian zehar parekotasuna markagailuan, baina azken segunduetan zumaitarrak aurreratu ziren; 19-18. "Pitxi" Herroren mutilak Arrate taldea izango dute bixitari Musakolan asteburu honetan.

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe 2,

Erakusketa: Sancho Abarca 6,

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



**E D E L
TAPIZTEGIA**

Gortina
Alfonbra
Koltza

Bidakruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25
BERGARA


Matxura hura

Larunbat arratsalde izan zen, nola ez. Eta etxetik urrun, noski. Bapatean autoak plot! ezin zuen eta ezin izan nuen bidaia jarraitu.

Lehen kolpean, harridura. Nola arraio gerta daiteke horrelakorik auto berri batekin? Errebisioak egiten dizkiot, bada, saltzaileak agindu moduan! Autoa saldu arte bai, dena abantaila eta komenientzia, baina gero?

Bigarrenik, ezintasuna eta lelo aurpegia. Antzinako zentauroen moduan erdi gizaki eta erdia auto garenez, bi zatietako batek hutsegiten duenean osotasuna galdu egiten da, zati bakoitza ez da ezer bere aidentik. Edo bestela esan, zer demontre naiz ni larunbat arratsalde batean, etxetik 200 kilometrotara eta autorik gabe?

Lehen erreakzio horien ondotik, homo sapiens omen den hori jarri



zen martxan, autoaren paperetan begira hasi eta bi aukera agertu ziren. Bata, aseguru etxeari dei egitea eta bestea autogileari berari. Izan ere, biek eskaintzen dute, matxura suertatuz gero, garajerainoko garrarioa, garajeko lana eta beste zenbait zerbitzu. Aukeratu beharraren beharraz, aseguru etxearen telefonora dei egin nuen, Madriler. Gero autoa hemengo garajera eraman nuenean bertan esan zidaten hobe nuela autoetxera dei egin izan banu,

zerbitzu ona emateko konpromezu nandia zutelako. Autoa garantian zegoenez, total bai, baina bestela... Madrilgo neskak datuak hartu zizkidan baina nere harridurarako ez zidan matxurari buruz ezer galdetu, berehala iritsiko zitzaidala grua eta agur. Bai etorri ere? Baina etorri zenak ezin izan zuen matxura konpondu eta autoa kamioi gainera bota eta garajera eraman zuen. Han zela-baiteko konponketa egin zidaten, egia esan, baina behintzat etxeraino iristeko beste bai. Uste baino bospat ordu beranduago izan bazen ere.


Matxura hura gertatu ondoren, nire auto berriarengan nuen konfidantza pixka bat ahuldu egin dela aitortu behar dut, baina era berean 24 orduko zerbitzua eskaintzen duten telefono horietan nuen mesfidantza ere gutxitu egin dela ezin uka.

Mikel Intxausti

Gorka

ILEAPAINDEGI
MIXTOA

Bainetxe kalea 10, behea. Tfnoa: 79 96 80 eta 79 63 27
ARETXABALETA



PEÑACOB
Auto-Eskola

Zarugalde, 46
79 14 01

ARRASATE

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak
ARETXABALETA

ORTZI erretegia

Angiozar auzoa
Tfnoa: 76 22 68
BERGARA

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....
HELBIDEA.....
HERRIA.....

Zeharkale Estalia 1, 1. b -ARRASATE- Tfnoa:79 71 64

ARRASATE PRESS

77 05 65

URREZKO 8 ARAUAK

ETXEBIZITZA EROSI EDO SALDU BEHAR DUTENENTZAT



1. Eskain-eskari merkatu handia izan

Oso garrantzitsua da erosleentzat salgai dauden etxebizitza gehienak aztertu ahal izatea eta jabeentzat erosleak informazioa jaso dezaten.



2. Kolaborazio espezializatua bilatu

Aholkulari espezializatuaren lana, nahitaezkoa da etxebizitzaren salerosketak dauzkan aspektu guztiak ezagutzeko.




3. Seguratasun-neurriak bilatu

Disgustu bat baino gehiago ekiditeko (ebitatze-ko), zamak, hipotekak, bahiturak, morrontzak, etab. ezagutzea, ordainketak kontu abalaturan egitea, eta nori zabaltzen eta erakusten dion etxea jakitea.



4. Ondorio fiskalak aztertu

Fiskoarekin topo egin gura ez baduzu, aukera desberdinen ondorioa aztertu, etxebizitza erosi edo saldu baino lehen.



5. Behar den denbora inbertitu

Eta ez gehiago. Erosleek, informatizazioaren bidez, "bat-batean" ezagutzen dute. Hauek merkatua eta planok, giltzak, etab. dauzkate. Jabeek ez dute gestioari egin behar Erakunde, Kutxa, Notari, Erregistroetan...



6. Aldez aurreko balorazioa egin

Saltzeko zein erosteko, merkatuko benetako prezio egokia eta ondo jakitea komeni zaizu.



7. Finantz alternatibak aztertu

Eta salerosketen-kontratu bati erantzuteko kreditu eta subentzio-alternatiba desberdinak zehatz-mehatz ezagutzea eta mesedegariena aukeratzeko.



8. Kontu handia jarri kontratuan eta eskrituran.

Kontratu on bat saltzaile eta erosleentzat, bientzako, garantia da. Garrantzitsua da, halaber, legez tramite desberdinak eta bere kostuak ezagutzea: eskriturak, BEZ, notari-gastuak, erregistro-gastuak, gainbalioa, etab.

Guzti hau geure bulegoan konponduta izango duzu, talde profesional batek abalaturik.



Anboto

SAN VIATOR IKASTOLA

- O.H.O.n izena emateko epea irekita dago honez gero: martxoak 1etik 15era bitartean.
- Zure seme-alaba eredu pedagogiko eta euskaldun honen partaide izatea nahi baduzu, hurbil zaituz San Viatorreko Idazkaritzara: irekita goizeko 8:00etatik arratsaldeko 19:30tara (13:30tatik 14:30tara, itxita).
- D eredu eta Inmertsio Plana aukeran.
- Informazio gehiago nahi baduzu, dei ezazu telefono honetara: 79 04 11

Hezkuntz sistemaren erreforma (III)

Aurreko artikuluan Erreformak planteatzen dituen ikuspegi berriak aipatzen genituen: haurra ikasi egiten duen gizakia dela, errealitatea deskubritzen duena bera dela, eta aprendizaiak edo aurkikuntza hori egiteko irakasleak baldintza egokiak sortu behar dituela.

Haurraren ezaugarriak, beraren posibilitateak eta dakiena abiapuntutzat hartzea suposatzen du horrek. Baina hori egiten badugu, ez da dakien gauzetan gelditzeko, baizik eta haurra gero ta egoera konplexuagotara eramane eta bere ezagutzak aplikatu ahal izan ditzan.

Bestalde, haurrak berak bakarrik zenbait gauza egin dezakeela denok behatzen eta egiaztatzen dugu. Eta beste hau ere egiaztatzen dugu: nagusiaren laguntzaz, edo beste lagunekin, edo egoera berezietan -adibidez, jolastean- itxuraz bere adinari ez dagozkion lanak egiten dituela. A zer poza

sentitzen dugun gurasook geure haurrek, beraiek bakarrik, laguntza txiki batekin, bere scalextric edo bere trenamuntatzen dutenean edo eraikuntza amaitzen dutenean!

Hau eskolako egoerari aplikatzen badiogu, zera ikus dezakegu: haurrak aurretik ezagutzen duenarekin erlazionatzen duenean aprendizaiak berria, egoera berrietan edo bizi dituen egoeratan aplika dezakeenean ikasten duena, irakasle eta ikaslearen arteko interakzioa aberatsa eta positiboa denean, ikasleek gauzak elkarrekin eginez ikasten dutenean... zirkunstantzia guzti hauek ematen direnean, egoera atseginagoa eta aprendizaiak errazagoa bihurtzen da.

Bestalde, haurrak ezagutzen duenetik abiatzen bagara, ez da bertan gelditzeko, bere ezagupena zabaltzeko eta egoera ezberdinetan aplikatzeko baizik, problema berriei irtenbidea aurkitzeko.

Beraz, aprendizaiak zerbait aktiboa da. Eta horrek ez du eskuzko iharduera bakarrik esan nahi. Behatzea, bilatzea, ikertzea, deskubritzea, galdetzea (eta guzti hori errealitatean, bizi den inguruan, liburuetan, beste pertsonekin harremanetan egiten da), eta berdintasatzea, biltzen dituen datuak ordenatzea, lotzea eta erlazionatzea, aurkitu duena adieraztea... hori ere iharduera da eta irakaskuntza aktiboaren zatia.

Hauek dira, ba, hezkuntz sistemaren erreformaren zenbait printzipio: haurra gizaki aktiboa dela; irakaslea beronen aprendizaiaren gidaria dela; bere ezagupenak zabaltzeko eta aplikatzen jakiteko, ezagutzen duenetik abiatu behar dela; irakasle-ikasle eta irakasle-ikaslearen interakzioa hezkuntz ihardueraren ardatza dela; ikaste/irakastearen prozesua prozesu guztiz aktiboa dela.

Klarion taldea

Mondragonesa Grafikagintza

Paperdenda. Mahaigaineko tresnak

Olarte 10, Tfnoa: 79 12 63

BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak
Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu

Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE

Felipe
Arrizabalaga
aroztegia



Legarre pabiloia Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE

KORTAZAR EDARITEGIA

Pintxo bereziak
GIRO APARTA

Barrenkale 16,
Tfnoa: 76 20 62
BERGARA

**ARRASATE
PRESS**

77 05 65

Nerabezaroa III

Gure gaztetxoaren ohiturak ezagutzeko inkesta bat egin dugu, horretarako 987 ikasle ikertuak izan dira, ikastetxe eta ikasmaila ezberdinetan aurkitzen zirelarik, ondoren ikus dezakezunez:

beste edozein edari alkoholikorik etxean edateko ohiturarik ote zuten.

Argi dago seme-alabek sendiaren ohiturak ederki ezagutzen dituztela. Baina ikus ditzagun interesgarriak diren beste hainbat datu: Ikertutako

hilik zegoena, %1,21 gurasoek banandurik zeuden.

Amen artean 572, hau da %58,5 etxeko andreak ziren eta %41,5 etxetik kanpo lan egiten zuten gainera. Ez goaz hemen psikologi aldetik honek duen eragina aztertzerik, baina bai agertzen diren ezberdintasunak alkoholei eta tabako kontsumoan agertzen direnak 954 aitek industrietan nahiz tailerretan egiten dute lana, beraz esku langileak dira; %13 bulegoetan lan egiten dute eta gainontzekoak zuzendari lanetan, dendetan eta administrazioan banatzen dira. Hauetatik aparte azpimarratu beharra dago 27 langabezia aurkitzen direla.

	Ikastetxeak		Ikasmailak		
	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	
<i>Erguin</i>	33	43	<i>OHO</i>	278	257
<i>S Andres</i>	54	38	<i>BUP</i>	143	111
<i>Ikastola</i>	191	176	<i>COU</i>	17	15
<i>S. Viator</i>	58	40	<i>FP</i>	77	1
<i>Institutoa</i>	44	53	<i>IU</i>	35	52
<i>Eskola P.</i>	136	84			
<i>ETEO</i>	35	52			

Gazte guzti hauei gurasoen ohitura eta ogibidea galdetu zitzairen, erretzen zuten ala ez, ardoa edo

987 gaztetxo hauen gurasoek %94,73 bizirik zeuden, %3,34en aita hilik zegoen eta %0,71 ama zen

Eukeni Olabarrieta
Arantxa Lizaso

AE ELKORO

AE

Magdalena 29-31,
Tfnoak: 79 18 86 - 79 45 99
ARRASATE

TB
HIFI
VIDEO-CLUB
ZERBITZU TEKNIKO

BLAUPUNKT
PANASONIC
PHILIPS
HITACHI
MITSUBISHI
SONY

AE

Garibal 10,

ETXEKO TRESNAK
ARGITEGIA



SATELITE BIDEZKO TB
TELEBANAKETA

Bilbo-Bilbo 3. Klasika

Berdin bada ere, azkenik, txirrindua izeneko artikulu honetan klasika baten berri emango dizugu.

Bai, bizikletari askok espero duten klasika:

Bilbo-Bilbo Nazioarteko 3. Zikloturismo-klasika. Datorren 1990eko martxoaren 18an izango da. Sarrera goizeko 8'30etatik 9'30etara. Kontuz! 10 minututik 10 minututara irtengo dute. Heldu eguerdiko ordubata t'erdietatik ordui t'erdietara.

Ibilbideak 116 km izango du. Hasi Bilbon eta gero Galdakao-Zornotza-Autzagane-Mugika-Gerekiz-Fruniz-Garniz-Astoreka-Larrabetzu-Zamudio-Artebakarra-Mungia-Andraka-Plentzia-Getxo-



Bilbo.

Guztira 116 Km. Benetan bikaina da ibilbidea.

Izena emateko kostua: 400 pta. Izena emateko, parte hartu nahi duzuenok, bizikleta dendetan dauka-

zuen triptiko baten bidez egin dezakezue. Izena, helbidea, etab. datuak jarri eta Bilboko Nazioarteko Erakustazokara bidali, 468 apartatua-48080 Bilbo. Fax (94) 4424222.

Izen emateak baieztatzeko Bilboko Erakusketa honetan martxoaren 16 eta 17an goizeko 10etatik arratsaldeko 8etara eta martxoaren 18an goizeko 7etatik 9etara.

Ikus dezakezuenek, aukera ederra bizikletazaleontzat, ONCE etxeak antolatu duen klasika ho-

netan.

Anima zaitetz eta parte hartu! Gainera, beste guztiak, parte hartu behar ez duzuenok. Bizikletari buruzko erakustazoka bisitatu ahal izango duzue.

K.U.

BIDEO-EMANALDIA

Espioiak gu bezala

Tokia: Monterron kultur etxea

Eguna: martxoaren 3

Ordua: arratsaldeko 4etan eta 6etan

Prezioa: 50 pezeta

Sarrerak: Monterronen

Antolatzailea: Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea



**Diru asko ala gutxi,
ez ondotik pasa,
ez begiak itxi.**

**Sartu, ikusi...
eta komeni bazaizu erosi.**

Santamaina kalea 36, Tfnoa: 79 92 62 Faxe: 791489 ARRASATE



Zabalik gaude!!! Erakusketa berria Santamainan

Teatre de l'Aigua

COGITO

Martxoak 3, larunbata


Amaia antzokian

Gaueko 10:30etan

Sarrera: 500 pta.

Gazte-txartelakin: 300 pta.

Arrasateko Udala



Aste gazte

Azkenengo Udal Plenoak hartutako akordioa:

“Euskal Gazteek soldaduzka ez betetzeko duten eskubidea aldarrikatzea”

“Herriko edozein gazte, eragozle izateagatik detenitu edota prozesatuta izango balitz, berari Udalak laguntza eskalniko lioke eta bere prozesuaren jarraipena egingo luke”

Ifigo Askatu kartzeleratu egin dute soldaduzka egin nahi ez izateagatik.

Bekak

— 1990/91 Ikasturtea ikertzailerak gaitzeko bekak

• Doktoradutza aurrekoak. Espainian eta atzerrian.

Diru-zenbatekoak: Espainian: 90.000 pta. hileko.



Atzerrian: 130.000tik-160.000ra hileko, gehi matrikula eta bidaiak.

• EHAera itzultzeko doktoradutza ondorengoak.

Diru-zenbatekoak: 155.000 pta. hileko.

Eskabideak: UPV/EHUKo Errektoadutza.

— Ikerketarako laguntzak:



• Energetika ikerketen zentroa, ingurugirokoak eta T. Lizentziatua aukeratutako beken arabera. Ikertze-ko gaiak: Teknologia nuklearra, Ingurugiroa, etab. Epea: Martxoaren 11an.

Lehiaketak

— 1990eko XIII. Euskal Zinema eta IV. Euskal Bideo Topaketa. (Zestoan) Maiatzaren 14tik 26ra egingo da.

Formatoak: — Filmak: super 8 eta 16 mm.tako laburmetraiak.

— Bideoak: Beta, VHS edo U-Matic Low band.

Euskaraz eginak. Gai librea. Soinuak filma edo bideoari itsatsia izan beharko du.

— Gasteizko profesional gabeko XXI. Zinearen lehiaketa. Gai librea. Formatoak: super-8, Single-8 eta 16 mm. Soinua: Optiko edo magnetiko sistemaren bidez eginak. 30 minutuko iraupena. Saria: 150.000 pta. Epea: martxoaren 15a.

— Literatur Sariak: (Iruneko Aurrezki Kutxa Munizipala).

• Elaberria: 13. “Navarra” Saria. Luzera: 100-150 orri. Saria: 750.000 pta.

• Poesia euskaraz. 13. “Xalba-

dor” Sariketa. 400.000 pta.ko saria. Idazlanek 700-1000 bertsotako luzera izan behar dute.

• Poesia: 11. “Arga” saria. 400.000 ptako saria. Luzera: 700-1.000 bertsotako luzera. Epea: 1990.eko Martxoaren 30ean.

— XII. Aller ipuin lehiaketa. (Asturias) Gai librea. Gizonen bizikidetasunari buruz diren kondairak meritutzat hartuko dira. Saria: 75.000 pta. eta diploma. Epea: 90-3-31

“Murcia 90 konponzisia” III. nazioarteko lehiaketa. Antolatzailea: Gazte orkestren nazioarteko jaialdia. Saria: 200.000 pta. Epea: 90-3-15

Bidaiak

• T.I.V.E. 26 urtetik beherakoen-tzat edo 30 urtetik beherako ikasleentzat.

— Italia: 9 egun busez; 32.650 pta.tik.

— Italia: 8 egun hegazkinez + busez; 37.550 pta.tik


— Yugoslavia: 8 egun hegazkinez; 50.300 pta.tik

Informazio gehiago: Gazte Zerbitzua Tfnoa: 79 09 00

AUSTIN ROVER



AUTO SAN ANDRES



IBILGAILU-MOTA GUZTIETAKO KONPONKETA ELEKTRIKOA

Araba Etorbidea 5, Tfnoa: 79 95 22 ARRASATE

ETXEBIZITZAK

- Neska behar da Donostian pisua konpartitzeko. Tfnoa: 76 43 74 (arratsaldeko ordubietan)
- Ikasleak Donostian pisua konpartitu nahiko luke. Tfnoa: 27 86 84. Asteguntan arratsaldez.
- Zigarrolan pisua erosiko nuke. Interesatuak deitu 79 62 89 tfnora.
- Neska behar da Bilbon pisua konpartitzeko. Tfnoa: 79 98 30
- Errentan erdialdean pisua osatzeko pertsona behar da. Gela izango luke. Tfnoa: 79 51 49 eguerdian edo gaueko 11etatik aurrera.
- San Andresen garajea alokatu edo erosiko nuke. Jabier 79 50 53
- Bi neskak tokia behar dugu Bilbon, pisu konpartituan. Deitu 79 26 62 tfnora.
- Bikoteak errentan hartzeko tellatupe edo pisu txikiren bat nahi genuke. Tfnoa: 79 81 76
- Aramaio kalea 4, etxabea etxebizitza salgai. Deitu 795521 tfnora.
- San Andresen etxebizitza salgai. Errebuelta kalea 8-3.D. Telefonoa 799718.
- Konpartitzeko pisu bila. Deitu 793900 tfnora, gaueko 10etatik aurrera, edo (948) 243195 tfnora edozein ordutan. Blankaz galdetu (ATS).
- Errentan pisu txikiren bat edo teilatupea hartuko genuke bikote batek. Ez digu axola hutsik bada ere. Tfnoa: 798176

LANA

- Disko-pub-kafetegietan esperientziadun kamarera lan egiteko prest. Itxura onekoa. Tfnoa: 79 70 41 (Teles)
- Umeak edo pertsona zaharrak zaintzeko prest (gauetan eta asteburuetan) Tfnoa: 79 28 30
- Neska euskalduna O.H.O.ko haurrei klase partikularrak emateko prest Deitu arratsaldeko 7etatik aurrera 79 64 82 telefonora.
- O.H.O.ko klaseak ematen dira. Tfnoa: 79 26 19 (Itziar)
- Emakume euskaldunak umeak zaldu edo etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 07 73.
- Bi emakume euskaldun behar dira asteburuetan erretegi batean lana egiteko. Deitu tfno honetara 76 22 68
- Behar dira: sukaldari laguntzailerak (barra zerbitzuan lanean dakiena) eta sukaldaria. Tfnoa: 79 17 86. Eguerdiko 2etatik 4etara eta gaueko 9etatik aurrera.
- Emakume gazte eta arduraduna lanerako prest. Tfnoa: 797736
- REM lehen kurtsorako irakaslea hartuko genuke, egunean bi orduz, klase partikularrak emateko. Interesatuak dei: 79 59 08 (Marih)
- Etxeko lanak egin eta haurrak zainduko nituzke. Tfnoa: 79 73 83
- Edozein lan egingo nuke. Taberna, jatetxean, haurrak zaindu... Dei 7915 35 telefonora.
- Pertsona euskalduna behar da ikastetxetan eta etxez-ete bideak saltzeko. Baldintza interesgarriak. Interesatuak deitu 79 54 46 telefonora.
- Sukaldeko lanak egingo nituzke. Dei 79 43 93 telefonora.

SALEROSKETAK

- Janet markako haur-kotxea salgai egoera onean. Eguzkitakoa eta euritakoa doan. Dei egin 79 91 77 tfnora.
- 4 urteko 10 behi saltzen ditut. Ernai daude. Mendikoak. Amutxastegi Zaharra baserria. Basalگو auzoa: Bergara
- Vespa-200 motorra salgai. Deitu 79 24 66 tfnora. Aitor
- F-301 NIKON argazki-kamara salgai. 50 m m, 70-150 m m, 28-105 m m. Tfnoa: 796495
- Primeran dabilen R-12 txurria salgai. 9 urtekoa. BU-F. 125.000 km. 200.000 pta. Kike. Tfnoa: (945)24 96 01. Goizez.
- Seat 127 kotxea salgai. Matrikula SS-7330-F. Tfnoa: 79 75 67
- Zubi-logela salgai. 90 zentimetroko bi ohe; luzera 3,45m. Goiera 2,20m. Idaztegia ere badauka. Tfnoa: 79 80 08
- Somler ohea salgai. 120 zmko zabalera. Egoera onean. Interesatuak 796150 tfnora deitu 5:30etatik aurrera.
- Montego Turbo SS-2264-Y salgai. Telefonoak: 525338 276266.
- "Yamaha SR-250 espezial" SS-Y salgai dago. Primeran dabil eta 17.000 km ditu. Dei telefono honetara 79 61 89.

DENETARIK

- Botatzeko duzun ofizina mahal hori gustora jasoko nuke zure etxera joanda. Dei 79 21 35 tfnora.
- Fosilak eta naturaren bitxikeriak atsegin bazaizkizu deitu nazazu koadrika bat osatu eta mendiak ezagutzeko. Gaizka Mena. Tfno: 79 65 31

ARRASATEN HILDAKOAK

Maria Altuna Altuna
Otsailaren 21ean. 90 urte.

Diego Cabrera Acosta
Otsailaren 25ean. 22 urte.

M. Dolores Amozarrain Sologastoa
Otsailaren 25ean. 61 urte.

Martin Ibahe Errasti
Otsailaren 26an. 64 urte

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka 1,
20.500 ARRASATE Tfnoa: 77 05 65

Famauen ahotik

Bittori Gallastegi:

“Lana gogor eindre baiñe oso ondo pasau juat kamarera”



Francoi zerbiturako atara eraiñ eutzien kamarera kameta

Goixetan eskolie, atsaldetan umezain

Hamar urte arte ero goixetik eskolan ibili nitzuan, merzedarixetan. Guk mojai zumak erueten gutzian eta mojak mutikuei, Sologaiztoa, Felipe Victoria eta honei, taka-taka palizie. Gero irteixeran hareik palizioi guri huelte-tan juzkuen. Atsaldetan ume-zain eitten naixuan. Honeik ameriaknuok, Inazio, Joxe eta Julio Isazelaia zainketan nittuan San Josepen.

Seberiana difuntiek menbrilluaz merixendie emun eta ze ondo!

Hamaike urtekin Etxesondora

Maxuena azpikaldien jauan Etxesondo. Hamaike urteaz juen eta bi urte eñ nittuan. Bankuen dabillen Joseba Arabaolaza zaindu, ontzixek garbitu, ohiek eñ eta halan.

Hango tio Joxe, Txoxara jueten zuan kafie hartzen eta azukertontorrek ekarten jittuan jan barik. Bat

txakurrendako eta bestie niretzako.

Bixok pozik, postre haundixe zuan ha orduen. Hamabi pezeta t'erdie pagetan jutzien hillien eta gabonetan aparte, menbrillue eta bakaillaue. Etxezarretan pabo reala baiño harruau etorten nitzuan Intxaustire.

Handik Plaentxiara juen nitzuan eta taillerrien destajuen lanien eindre nak, lan gogorra baiñe ondo pasau naixuan. Oso maitte juat nik Plaentxi.

Bittoixeko "Hotel Fronton"-en

Kofixa zurixe eta guante xurixek jantzi eta Francoi zerbituten ibillite gazak bertan. Hamalau geontzan Mondrauekuek eta esaten juzkuen: "Todas son rojas y de familia" eta "Carnet de Camarera" atara eraiñ juzkuen, berai zerbiturako.

Ezer pasau barik juan zaniene pozik. Postas kale guztie, uniformedunekin bete-bete eindre jauan eta.

Arrate, Urtiagain eta Urkiolako Buenos Airesen

Kamarera, umiek hazi eta gero ekin nutzan. Beste leku askotan be ibillite nak baiñe honeitten bakotxien bost bat urte ingo nittuan.

Gizonaz jueten nitzuan, eguerdi aldera kutxarilla batzuk eta siketu eraiñ eta gero bapo jaten juan neska gaztiekin, andra zaharrakin baiño hobeto.

Zapatu-domeketarako eta, hiru-lau lekutatik deketan jutzien eta ba, ipurdi batekin, batera juen biher.

Lana gogor eindre baiñe ondo pasau juat, ostera hastie balitzok barriro be kamarera gustora ingo naukek.

Estepan Plazaola eta J. M. Garai

Zelebrequerixak

— Baina Txomin, zela jan dittuk nik emondako piku guztiak hire anaiakin akordau barik?

— Ez ba ama. Jaten niharduala nere anaiakin akordatzen egon naiz, nik danak jan baiño lehenao etorriko ete zan.

Gaztandolako Paulo Elgetako kanposantuko hormia jasotzen ziharduen gizon batzuekin topau zan:

— Atsaldeon gizonak! Ze, badiharduzue?

— Bai, badihardugu.

— Alperrik diharduzue ba.

— Alperrik?

— Bai, alper alperrik. Ze eztago billurrik barrukuak urtetzeko eta kanpokuak pe ez gogorik barrura sartzeko.

Orduan be sikute mortala ei zeuan. Ez etxetan urik ez argirik, (orduan argindarra urakin eitten zan) tailler guztiak geratuta...Atsalde baten Maltzan eibartar batek pre-guntau ei zotsan plaentziar bati:

— Hi, Plaentxi, Plaentzia aldian ze moduz zabizte urakin?

— Urakin ondo, ur barik gaizki.

Juan Martin Elexpuru

SOKOA

Zeharkale estalia Arrasate



KILI-KOLO

Ferrerias 21
Tfnoa.797006
ARRASATE



Musakolako Bidekurutzen. 1923


Nork ezagutu zaituen eta nork ezagutzen zaitu, Musakola! 1923ko egun hartan Isidro Heriz Mondragoeko alhondigeroa eta konpainia, Musakolara joan ziren ardoa eramatera. Bueltarako, zerrautsa kargatu eta kalera. Baina Bidekurutzen gelditu egin ziren argazki eder hau egiteko. *“Zaldi ona gaukan guk eta gobernau be ondo eitten gaixuan. Lau erruberrako karrue ibiltten gaixuan, burdinazko llantadune”*, zioskun Luis Herizek joan den asteko Berbaroan. Gurdi horren gainean, jarrita, haren aita Isidro, eta anaia Gabriel, beranduago istripu batean hil zena. Zutik,

zaldiari eusten, Andres, Ferreriasen bizi zen morroi arrasatearra. Korbataduna, ezagutzen ez dugun bajaran-tea.

Argazkiaren eskuinaldean ikusten den etxea, *Hierro etxea* da, eta bere atzean Zerrajerako etxeak. Bidearen ezker aldean dagoena gaur egun Musakolako jubilatuen etxea dagoeneko da. Gaur egun ezagutzen ditugun Ifan, San Antolin, San Lorentzo, Santa Teresa eta kiroldegia falta dira ezker aldean. Eskuin aldean Musakolako gasolindegia eta hainbat gauza.

“Maxua” baserria ere antzeman daiteke. Haren gainean Arbe gaina.

Orain bi astebeteko Fotozaharrean hiru emakume ezezagun agertzen ziren. Zuen laguntzari esker, irakurle, nortzuk diren jakin izan dugu. Zutik eta beltzez jantzita zegoena, *Aurora Unzueta* zen, bilbotarra izatez; iaz hil zen. Zuriz jantzita *Mari Tere Astarloa*, bilbotarra, Bixente Arregiren alarguna. Jarrita dagoenaz ez gaude seguru, *Mercedes Jauregi* izan daiteke. Mila esker telefonoz deitu edo idatzi diguzue-noi.



EUSKARAREKIN
ZERKUSIA DUEN
ZERBITZURIK ZABALENA

BALLENEROS KALEA, 12-1. A - 20011 DONOSTIA

TEL. 943 - 46 69 06 / FAX 943 - 46 68 94

• ITZULPENAK

• HIZKUNTZ MAILAKETA-FROGAK

• DOKUMENTAZIO-ZERBITZUA

• AHOLKULARITZA JURIDIKOA

Hitz gezidunak

Esankorra	Osotora eragin mugierazi Itsas arrainak	Asti	Bihoztunak
Laguna	Ikara		Dago	
Inpromatu				
Tokata, Dauka				
			Artsenikoa	
			Harrera on	
Roentgen	Ibaietako igarobidea			Lehenengoa
Joan den urtean	Esaten zidan			Erbioa
		Gizon izena		
		Uranioa		
Seguru			Erdi, hitz elkar.	
Ukapen			Soro	
		Italiako telebista		Bokala
		Adin bereko		Ontzat har
Geruza			.. egin, asebate	
Lurralde hotz batean			Ihardun	
				(errep.) Gorotza
Detektagailuak				
Betebeharrak				
			Irish Republic Army	

V	R	I	K	E	N	V	L
K	V	R	V	D	V	R	V
I	N	V	O	K	I	R	T
K	O	L	O	K	S	O	S
V	I	R	V	I	R	O	K
T	R	E	R	I	U	R	Z
R	E	R	V	N	D	E	R
V	V	I	V	I	B	I	R
S	V	S	K	V	K	U	Z
U	L	R	R	V	A	T	U
V	A	D	I	S	K	I	D
B	Z	O	I	I	I	I	I

ENBIDOtik hartua, ELKAR-en baimenarekin

**ARRASATE
PRESS**

77 05 65

“PAL”

**burdindegia,
brikolage
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

BERANGO

*Aroztegia orokorra
sukaldeko altzariak
kanpo eta barruko ateak*

Legarreko pabiloi industrialak
(behea) Tfnoa: 79 01 92
ARRASATE

Mutil zahar bat konbentuan

I. Joxe Agustin Beitia
Saizarbitoria
hau da mutil-zahar horrek
duen historia:
joan zen ikustera
Bilboko hiria
majo sartu zioten
bertantxe ziria
pasatu zituen han
mila komeria

II Joxe genuen gizon
zatar ta ergela
zurezko hanka zeukan
piratek bezela
beti beltzez jantzirik
zirudien bela
sudurperaino zeukan
sarturik txapela
eta "piperra" ere
ez zuen motela!

III. Pentsatu zuen Joxek
batetan: "Errediez!,
urteak asko baina
neskarik bat ere ez
Bilbora joango naiz
aspaldiko partez
eta ez baldin bada
bere borondatez
diruz jabetuko naiz
hango neska batez"

IV. Trenean sartu eta
jeitsi zen Atxurin
"bidea jakiteko
onena galdegin"
pentsatuz hizketari
zion gogor ekin
batak frantsez, besteak
"lo sonno de Turin"
azkenik elkartu zen
bilbotar batekin.

V. Gizon biak bihurtu
zirenean lagun
galde egiten zion
Joxek bigun-bigun
hainbeste jende, soinu
zarata ta lurrun
entzuten zen urrun
"casa de citas" ordeztu
"carmelitas" entzun.

VI. Abiatu zen, bada,
Joxe Konbentura
atean inor ere ez ta
badoa barrura
inork ez entzuteko
harturik ardura
arraroa bait zeukan
etxeak itxura
joan zen asetzera
gorputzaren gura

VII. Pasatu eta gero
santuen kapilak
agertu zitzaizkion
behingoz neskatalak
"Bai dituztela hauek
titi borobilak
ta gutxi balitz ere
horra pantorrilak
pena merezi du ta
aurrera mutilak!"

VIII. Ikusi zutenean
agure berdea
pentsatu zuten zela
Bibliako sugea
leherengo oihukatuz:
"Ai, Aita Gurea!"
azkenean aurkitu
zuten adorea
ostikoka atera
zuten agurea.

IX. Batetik "ene!" eta
bestetik, aldiz, "ai!"
juxtu-juxtu gelditu
zen irtetzeko gai
Joxe oraindiokan
omen da ezkongai
ez du neska konturik
gehiago entzun nahi
kontua bukatu da,
agur, ondo jarrai!

Patxi Agirrebeña

ITURRIOTZ taberr

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa:79 16 04



TITARE

LENTZERIA FINA

Olarte kalea 8,
ARRASATE

■ **Super Channel ETBn:** Aurrekoan lagun bati entzun nion, azkenaldi honetan ETBk ajuste-taula ipini ordez, Super Channel katea ingelesarekin bat egiten duela. Igande goizean izan nuen hori egiaztatzeko aukera. Goizean telebista piztu eta marrazki biziak...ingelesez.

S.Andres, Uribe auzoa, Jose Luis Iñarra pasealekua eta antena parabolikoa duten auzokide arrasatearrek dagoeneko ondo ezagutzen dute kanale hau. Musika eskaintzen du batipat, bideo klipak, baita filmeak ere, zaharrak gehienetan, umeentzako zerbait eta publizitatea. Katea espezialdua dugu Super Channel, publiko gazteari zuzendua. Eta produkzio mailan oso merkea. Konturatuko zarete dekoratuak eta, ez direla bat ere bereziak: filme zaharren royaletak ez dira hain garestiak eta bideo-klipak eginda etortzen dira.

ETBri ere ez zaio oso garesti irtengo, eta betegarri erraza denik ezin uka. Laburbilduz, ETBk zabaldu egiten duela bere eskaintza eta geroz eta gertuago dugula, gure sukaldetan honez gero, Europa eta aniztasun europarraren errealitatea. Aspaldiko euskara, gaztelera eta frantsesari ingelesa erantsiko zaie hemendik aurrera Euskal Herrian. Antena parabolikoak, eta orain ETB, horren sarbideak izango dira. Sateliteen teknologia eta Europaren benetako eraikitzean eskutik etorriko dira, beste zerbait baldintzarekin batera. Euskaldunok, beste behin, moldatu egin beharko dugu errealitate berrian, geu izanda, geure lekua izaten jarrai dezagun.

■ **Bertsolariak jazen:** Telebista ixotu nuenean saioa hasita bazegoen ere, oso gustora ikusi nuen iragan domekako "Hizetik Hortzera" saioa, niretzat behintzat ezezaguna zen berrikuntza ikusi nuelako. Antolatzaileek gaia irakurri beharrean, zerbait, objektu bana, ematen zieten bertsolariari hauek hariburuz kanta zezaten. Kasurik gehienetan, egoerak eta emaitzak oso politak izan ziren. Peñagarikanori emandako buruhandia, besteri eskaintako belarriak, korbata, bainuko-pisua, farola, igitaia eta mailuak egoera ikusgarriak sortu zituzten. Ederrenak, telebistaren ikuspegitik, Lazkao Txikik ispilu aurrean kantatutakoak.

Primerako saioa iruditu zitzaidan, egoera eta zera haiek primeran datozkiolako, bestela hain estatikoa den bertsolaritza, eta hori telebistari egokitzeko ederto baino hobeto dator kio saioari. Egon litekeen arriskua, agian, bertsolariak pailosokeriatan jaustearena da, baina hori zainduz gero apur bat, bide horrek ikaragarri aberasten ditu saioak, telebistari begira gehien bat, berriro diot. Saioak askoz ere ikusgarriago bihurtzen dira. Bertsolaritza ere zerbait ari da aldatzen.

Joxe Aranzabal



— gusto baduzu —

■ **Kirolak:** Ostiralean, gaueko 11,55etan, pilota partidua: Soroa III eta Errastiren arteko bigarren mailako finala. Larunbatean, 15,15etan NBAko saskibaloineurketa; eta 17,40etan eskubaloia, Ereintza-Anaitasuna. Igandean, 12,25etan emakumezkoen eskubaloia, Hernani-Universidad Complutense; eta arratsaldeko 18,10etan, ACB ligako saskibaloia.

■ **The Bride of Frankenstein:** James Whalek 1935ean zuzendutako filmea, igandean, 15,15etan. Honako honetan, Henry Frankenstein munstroa eta bere emazte Elizabetheren gora-beherak kontatzen zaizkigu. Protagonista lanetan Boris Karlof antzesle ezaguna; berarekin Colin Clive, Valerie Hobson eta Hemest Thesiger.

■ **Acorralado:** Ez duzue oraindik Silvester Stallone *Rambitorenak* egiten ikusi? ba datorren asteazkenean izango duzue aukera, gaueko 9etan. Tiroak, leherketak eta hildakoak nonahi. Noizean behin hortik agertzen dira Richard Crenna eta Brian Dennehy antzesleak (hori bai, Stallonek uzten dienean). Guztia Ted Kotcheffen zuzendaritzapean.

bideoak



Aireko jaunak

Ezagutzen den lumarik zaharrena, dinosaurioen garaikoa hain zuzen, Alemanian aurkitu zen fosilizatua 1860. urtean. Erdi hegazti erdi narrasti izan zen Archaeopteryx izeneko kreaturaren luma da.

Hegaztien arrakasta ukaezinezkoa da. Oraingoz gizakiak ezin izan du asmatu hain pisu txikia duen eta luma bezain sendoa den gauzarik.

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).



J oan den ostiralean *ETB*ko kamarak izan ziren *ATB*n. Izan ere, “**Hemen eta Munduan**” programakoak herri telebistei buruzko erreportaia ari dira prestatzen. **Aintzane Bolinaga** eta bere mutilak *ATB*ko kamaren atzean ibili ziren azokan barrena. Eta *ATB*ko kamara bat *ETB*koen atzetik, haiek *ATB*rena nola grabatzen zuten grabatzen. Ulertzen?



A steazkeneko Berriak saioan **Pello Zabala** gonbidatu zuten *ATB*koek, eguraldiaren gorabeheraz hitz egiteko. Pello frantziskotarra da, eta Arantzazuko ikastetxean eskolak emateaz aparte, eguraldi iragarpenak egiten ditu goizero Eskadi Irratian. Berez darion sinpatiaz, Arrasate Press eta *ATB*ko lagunak ere segituan egin zituen adiskide. Biharamoneko eguraldia ere asmatu egin zuen. Gaitzerdi!

E rleak eztira bezala, halaxe ibibi ziren umeak Haratuzte asteartean *ATB*ko kamarak ikusten zituzten bakoitzean. Helduek lotsa dexente erakusten dute kamara aurrean, baina umeek ez diote bat ere bildurrik begi beltzeri.



ENARA
OSAGIRRIAK



Maalako Errabala 21,
20500 Arrasate
Tfnoa: 79 62 32



Iosu

argazki denda

Argazkilaritzarako
materiala.

Erreportaiak.

Ikastaroak

Olarte kalea 11, Tfnoa: 79 82 60



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Profesioarekiko erabakiak hartu beharra izango duzu urte berria hastean, beraz erabakiak hartu aurretik benetako arreta eskainiz eta arduraz azter itzazu.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Negozioetan badiharduzu maleta pronto eduki, atzerrira bidaia bat egin beharko duzu eta. Ikaslea idazlea bazara, saiatu, arrakasta atarian dago eta.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Urte berria hastearrekin motelduta zenezukan energia horiek birsortu egingo zaizkizu; lanerako erabil itzazu, neke gabarik ez da bizitzerik eta.



CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Ezkonbizitzak, harreman sentimentalek eta negozio harremanek, arreta berezia merezi dute urte hasiera honetan. Ohitura zaharrak ahaztu eta bideragarritasun praktikoari.




LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

1990.ean oso garrantzitsuak izango dira enplegu eta Zerbitzu Publikoko arloak, Leo. "Zuk esanak eginez froga itzazu" Emaizta eraginkorrak lortzeko helburuez eta ondorengoez balia zaitetz.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Somen pertsonal. ume eta amoranteek izango dute protagonismoa Virgoengan. Arlo hauetan ohizko abilezia kritikoa erabili beharko duzu, aurrikuspen eta irtenbide berriak eskatuko bait dizkizute. Etxeko giroa ez nahasten saiatu.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Etxean dituzun arazoengatik zergatiak aztertu eta erabakiak hartu beharrezan zaude Libra. Nortasun gorabehera handiak dituzu. Erne ibili beharko duzu nolabaiteko oreka lortzeko.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Ez familiakideei ez ingurukoei ez diezu eskaini behar bezalako arreta eta ardura. Urte hasiera honetan igarriko duzu ikusterazi diezun axolagabekeriaren ondorioa zein den.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Urte berrian sartzean, goitik beherako mugimendua egingo du Sagitariok, dirua zein edozein balio sistemarekin zerikusia izango duena. Eman-kortasun praktikoa berrikuntza ideiekin lotuz arrakasta lortzerik izango duzu.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Zereginik ez zaizu faltako aurtengoan Kaprikornio. Orain arte egindako eginahalen ordain, zeregin berri eta aurrerakoietan murgilduko zara. Betidanik etorkizunerako izan dituzun helburuak gauzatu egingo dira.




AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Urte Zaharra amaitzean, bakardadeak, zeure kasako lanak eta "barne-hausnarketak" zuregan duen eragina areagotu egin da. Puri purian egon izan zaren momentua berriro eratzeko izango da betebeharririk garrantzikoena aurtengoan.




PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Urte hasieran, lagunak, taldea eta elkarteak aztertu beharra izaten da, Piscis. Merezki dutenak edukitzen jarraitzea da printzipalena. Izkutuko amodioa izango duzu laster.



Salterain

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...



P. C. V.zko LEIHOGINTZA

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.
Tfnoak: 79-24 12 eta 79 99 58

20.500 ARRASATE

IKUS-ENTZUN

ZURE HAURRENTZAKO BIDEO DIDAKTIKOAK



BIDEO HAUEKIN


Gizartean bizi gara

Ingurua ezagutzen

Etorkizuna ezagutuz


geureganatu egiten dugu

LASTER ZURE ETXEAN!!!



Okendo 5,
79 26 99 ARRASATE

TXOMIN



bakearen zutabea

NEGOZIAZIOA

OMENALDIA: MARTXOAK 4 IGANDEA

EGUERDIKO 1etan


HERRI BATASUNA

ARRASATEko Sebero Altube Enparantzan